

TOKIKOM

2012ko martxoa | 113. zenbakia

ai kor!

txorierriko aldizkaria

Marea zurigorria

IKER GALARTZA RUBEN GLERA HOLANDAKO BISITARIAK BERBALAGUN TALDEA



L.H.ko 5-6 mailakoa zara?

Euskaraz jolastu nahi duzu?

Sari potoloak irabazi nahi dituzu?

ZATOZ TXORIERRIKO MIHILUZERA!

NORENTZAT: Lehen hezkuntzako 5-6 mailakoentzat

IZENA EMAN : Txorierriko ludoteketan

NOIZ : Martxoaren 1etik apirilaren 20ra



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: José Luis Revuelta, Xabier Díaz, Itsasne Zubiri, Bestorrene, Oihana Astobeta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



12 Iker Galartza



24 Rubén Glera



30 Holandako bidaiariak

- 4 Eritxia**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Kaixo, Udaberria!**
- 12 Gurean izan da... Iker Galartza, aktorea**
- 14 Gaztea eta... Iraia Rodríguez, karateka**
- 16 Amets goxoa, Manchesterren**
- 22 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 24 Txorierriartuak... Alberto Gainza**
- 26 Zaintza partekatua**
- 28 Rubén Glera, basamortuaren konkista**
- 30 Elkarreak... Berbalagun taldea, Derio**
- 32 Holandako bidaiariak**
- 34 Teknologia... Giza genoma**
- 35 Aikorrizketan... Amazonas Txorierrin hasten da**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

Peluteria
Estetika
94 455 81 44
Angulen 2. beheko Larrabetzu-Bizkaia

Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

Oguiza
Hortz Klinika
Kirurgia eta inplanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak
Angulen enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890

EDITORIALA

Aurrera begirako erronkak

Gurea bezalako gizarte moderno batean nekez egingo dira urratsak hedabide sare indartsurik ezean. Azken batean, hiltun komunitate guztiek dute mundua beren hizkuntzan ikusteko eta kontatzeko beharra. Gure lana 450.000 lagunengana iristen da, eta horretarako, 600 langile baino gehiago ari dira lanean 100dik gora hedabidetan. Guztira 27 milioi eurotik gorako aurrekontua mugitzen dugu urtean, eta zazpi milioi eurotik gorako ekarpena egiten dugu diru publikoetara.

Ezaguna da Informazio eta Komunikazio Teknologien hedapenak zer-nolako krisi sakona ekarri duen mundu osoan Komunikazioaren sektorera, eta 2008az geroztik bizi dugun krisi ekonomikoak aurreko hori areagotu besterik ez duela egin.

Kontuak kontu, euskal hedabideok etorkizunari buruzko gogoeta estrategikoa egin dugu elkarrekin, eta han aurrera begirako erronka nagusiak proposatu ditugu:

-Negozio eredu eta lan baldintzak.

Inbertsio handiak egin behar ditugu, teknologiak eragindako negozio ereduaren aldaketari aurre egiteko eta langileen lan baldintzak hobetzeko.

-Salmenta, kalitatea eta lehiakortasuna. Geure produktuen kalitatea eta kudeaketa hobetu behar dugu. Produktuok estimatzen badira ere, salmentan eta merkatu mekanismoen ezagutza asko sakondu behar dugu oraindik.

-Hautsarketa eta ikerketa. Hedabideen behatoki baten beharra ikusten dugu, besteak beste, zer garen, helburuak, audientziak, beste hizkuntzetan aplikatze-

ko moduko esperientzien esportazioa... garatzeko.

-Elkarlana. Sektoreko kideok elkarren lehiakide gara hainbat kasutan, baina elkarrekin ere jardun dezakegu guztion onurako. Koopetibitatea landu behar dugu.

-Erakundearen laguntza politika. Deialdien sistematik hitzarmen ereduera joatea ezinbestekotzat dugu. Beharrezkoa da erakundeek laguntza politika egokitzea eta sektorearen inbertsioak eta garapena sustatzea.

Herri ekimeneko euskal hedabideon ustez, garaia da erronka horiei sendotasunez heltzeko, eta beste molde eta bide batzuk jorratzeko, irudimena landuz, gogotik arituz eta batez ere elkarlanean, hedabideon artean zein erakunde publikoekin eta jendartearekin. Hala, gure etorkizun hurbila zein urruna bermatu nahi duen elkarlana abiatu dugu, sektore antolatua gisa funtzionatzen hasi ahal izateko lehen harria.

Euskera gureak barri ona ekarri deusku oraintsu. Aurten "D" ereduaren matrikulautako ume eta gaztetxuen kopuruak nabarmen gora egin dau-eta. Euskaltegiak be hainbat heldu hurreratu jakuz, gaitasun komunikatiboa lortu edota akreditatzeko maila eskuratuko dabenak. Unibersidadeetan urterik urte ohikoagoa da ikasketak euskeraz egiteko hautua. Horrek guzti horrek agerian itxiten dau gero eta gehiago dirala euskera dakienak zazpi euskal herrietan. Jakin be, euskeraz askok badakie.

Halan eta guzti bere, jakiteak berez ezinbestean egitea ez dakarrela ikusita gagoz. Horrexegaitik dago premia euskeraren erabilera sustaten jarraitzeko, alderdi publikoan nahi pribaduan. Bateko, ganorabakokeria bazter itxi eta pentsau

Jakin, egin eta eragin!



JOSE LUIS REVUELTA
(Udal Euskaltegiaren zuzendaria)

daigun euskaldunok euskaldunokaz euskeraz egitea berezkoa dogula, erarik naturalena. Besteko, zerbitzu publikoetan zein pribaduetan euskeraz komunikatzeko aukera baliu daigun, elebidunok be ondotxu ordaintzen doguzan zerbitzuak dira-eta. Horra, bada, noiz-non euskeraz egin.

Akabuan, inoiz baino derrigorrekoagoa dogu euskaltzale guztion alkarlana, danok bat eginik, danok eragile, benetako auzolanari (emon eta jaso) oratuta; beste biderik ez dago aro barrian euskerak behar dauen lekua izan dagian. Eragin, bada. Oraingoan bai, arto asko erein eta... sano koiu. Jakin, egin eta eragin!

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txaneri etorbidea, 5-4
413. Izarria
48100 Derio

Teléfono eta fax
94 434 44 50
a.amondarain@euskalnet.net

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Bidaia Iparraldera

a: Lagatzu

Aurreko urteetan bezala, Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak eta Arroeta mendi taldeak artean antolatuta dute Iparraldera; aurten, Altxora Sondikako euskara elkarteak ere bat egin du ekimenarekin. Bidaia apirilaren 28tik 29ra egingo da. Hara joaten direnek lau aukera izango dituzte apirilaren 28an: Baiona Kantuz ekimenean parte hartu, Done Jakue Bidearen Donibane Garazi eta Arnegi bitarteko zatia egitea (7 edo 8 km), Done Jakue Bidearen Donibane Garazi eta Luzaide bitarteko zatia egitea (15 km), edo Lasa

eta Luzaide bitarteko mendi ibilbidea egitea (6 ordu). Hurrengo egunean Nafarroaren Eguna ospatuko da Baigorri. Nahituenek herri bazkarirako tiketak erosi ahal izango dituzte han, edota bazkaria euren kontura egin.

Bidaiak 55 euro balio du elkarteetako bazkideentzat eta Berbalagun egitasmoan dabilzanentzat. Bazkide ez direnek 55 euro ordaindu beharko dute; eta 30 euro, 18 urtetik beherakoek. Joan-etorria, zapatuko afaria, ostaua eta domekako gosaria daude prezio horien barruan. Izena emateko azken eguna apirilaren 10a izango da, eta 10 euroko bermea ordaindu beharko da. Bidaian parte hartu nahi dutenek aipatutako elkarteekin jar daitezke harremanetan, edo mezu bat bidali lagatzu@lagatzu.org eta altxora.ee@gmail.com helbideetara.

Nafarroaren konkistari buruzko hitzaldia

Aurten 500 urte bete dira Gaztelak Nafarroa inbaditu zuenetik, eta Altxora Sondikako euskara elkarteak hitzaldia antolatu du urteurrenaren haritik. Hitzaldia apirilaren 27an, 19:30ean, izango da Kultura Etxean. Patxi Abasolo Lopezek emango du hitzaldi hori. Abasolo 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimeneko kidea da. Elkarteak *Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan duten oroimena* liburua eman du argitara, eta lan hori hizpide izango dute hitzaldian.

Eskolaren urteurrena prestatzeko batzordea

Datorren urtean, 25 urte izango dira Lezamako herri ikastetxea gaur egun dagoen lekura eraman zela. Lehen Udalaren eraikinean eta Goi-tioitzako txokoan egon zen. Urteurrena ospatzeko, hainbat ekimen egingo dira ekainetik aurrera. Lantalde bat ere osatzeko asmoa dago eta nahi duten guztiek izango dute lantalde horretan parte hartzeko aukera: ikasle ohiak, Guraso Elkartea, oraingo ikasleak, irakasle zein irakasle ohiak, Udala, herriko elkarteak eta partikularrak. Lehenengo batzarra martxoan egin dute, baina oraindik ere badago aukera ekimenarekin bat egiteko.



Kitchen sukaldeak
Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak

ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMATRIAK, SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK

Tf.: 94 656 85 69
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net

Txorierrita etorbidea, 9
Arteaga eraikina
48160 Derio (Bizkaia)

naturelle
AYURVEDA
KOLONEKO HIDROTERAPIA
NUTRIZIOA

✉ Astintze 2, 1. C Elor eraikinean
(trenaren lehengo hesiaren aurrean)
48160 DERIO Bizkaia

☎ 699 182 520

@ www.naturelle.es

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko
sabaiek eta
apalategiak
Sabai
erregistragarriak
Isolamendu
termiko eta
akustikoa

Aiertza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribi 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontuak doan
-Especialitatea:
umeak

Irakurri, gozatu eta oparitu

Aurten ere, Topaguneak Euskara Elkarteen Federazioak "Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina jarri du martxan. Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak eta Zorritzeta Lezamako euskara elkarteak bat egin dute harekin. Kanpaina apirilaren 23tik uztailaren 23ra bitartean izango da. Udal liburutegian euskarazko liburu bat maileguz hartzen dutenek erosketa-txekea jasoko dute liburu itzultzerakotan. Liburutegiaren erabiltzaileek %25eko balioa duen erosketa-txekea jasoko dute; eta elkarteetako bazkideek %50eko balioa duen erosketa-txekea. Zamudioz-tarrek herriko liburutegian erabili ahal izango dute txekea; Lezamako elkarteak laster jakinaraziko du hura non truka daitekeen.

Nagusien Jaia, Sondikan

Maiatzaren 5ean, Txorierriko Nagusien Jaia egingo da Sondikan. Aurtengoa zortzigarrena da eta Goronda Beko herriko kiroldegian egingo da, goizeko 11:30etik arratsaldeko 7ak arte. Besteak beste, ohiko jolasak, herri bazkaria eta dantzaldia izango dira han, nagusiek egun ederra pasatzeko. Txartelek 11 euro balio dute, eta apirilean eman behar da izena jubilatuen elkartetan.

Erregularitasun rallya, Zamudion



a: Josu Uribe

Zamudio Racing Elkarteak erregularitasun rallya antolatu zuen otsailan, Bizkaiko Real Peña Mostoristarekin batera. Lasterketa lehenbiziko aldiz egin zen Zamudion, eta, gainera, aurtengo denboraldiko lehenengoa izan zen. Antolatzaileak pozik azaldu ziren parte-hartzaileek eta zaleek emandako erantzunarekin, eta rallya datorren urtean berriro egiteko asmoa adierazi zuten. "Gauza asko hartu behar dira kontuan halako gauza bat antolatzeko orduan: ibilbidea zehaztu behar da, bideak moztu... Antolatze-lanetan 50 lagun ibili dira musu truk", aipatu

zuten. Lasterkariak Geldo eta Sandoni auzoak zeharkatu zituzten goizean, eta arrastian Fika-Lezama errepidetik eta Elorritxuetako igoeratik igaro ziren.

Guztira, 25 lagunek hartu zuten parte lasterketan. Asier Santamaría eta Joseba Macias (Renault 5) lehenengo postuan heldu ziren; Xabier Begoña eta Xabier Pujana (Porsche 911), bigarrenen; eta Ibai Agirre eta Ander Guinea (Ford Scort), hirugarrenen. "Baldintzetariko bat autoek 25 urte baino gehiago edukitzea izan zen. Beraz, parte-hartzaileen profilari buruz hau esan dezakegu: auto zaharrak zein lasterketak gustatzen zaizkie. Oso pozik gaude etorritako auto-kopuruarekin".



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Arbolantxa kalea, 6 - 1. ezk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Ele-apaindegia

M^a Antonia Llodio
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

OSKARBI
fotografoak

JOSEBA APEZETXEA
TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net



Sondikak euskaraz bizi nahi du

Altzora Sondikako euskara elkar-teak musika-bideo bat egin du, eta YouTube jarri dute ikusgai. Musika-bideoak "Sondikak euskaraz bizi nahi du" du izenburutzat, eta grabazioa eta edizioa Jon Goikouriak egin ditu. Argiztapena Igor Garcíaen ardura izan da. "Lan hau beste ekarpen bat da, herrian euskara bultzatzeko eta hura herritarren egunerokotasunera hurbiltzeko", azaldu dute. Musika-bideoan herritarrek eta kirol eta kultura taldeek hartu dute parte. Irudiak Sondikako hainbat lekutan hartu dira: futbol-zelaia, taberna, eskola eta kiroldegia, tartean.

Tour des Combins

Gailur Lezamako mendi taldeak irteera antolatu du Combins mendigunera (4.314m), Suitzako Alpeetan. Irteera uztailaren 27tik abuztuaren 5era bitartean izango da, eta aurretiko izen-ematea apirilaren 25a baino lehenago egin behar da. Bidaia 600 euro inguru balio izango du, eta parte-hartzaileek 200 euro aurreratu beharko dute. Azaldutakoaren arabera, trekkinga egingo da bost etapetan, eta teknika aldetik errazak izango dira. Izena emateko, mezua agindu behar da gailurmt@euskaltel.net helbide elektronikora. Bestetik, Gailur taldeak beste irteera bat antolatu du Errege Bardeara eta Moncayora. Irteera apirilaren 28tik maiatzaren 1era bitartean izango da.

Herri Krosa, arrakastatsu Loion

a: Josu Begoña

Martxoan Herri Krosa egin zen lehenengo aldiz Loion, bertako Udalak antolatu. Ekimena oso arrakastatsua izan zen, eta adin guztietako 800 korrikalariak parte hartu zuten. Haien tartean, eskarmentu handiko lasterkariak izan ziren. Aipatu beharra dago parte-hartzaile batzuk Euskal Herri osotik ez ezik Estatuko probintzia batzuetatik ere etorri zirela: Kantabrietik, Burgosetik eta Palentziatik, esate baterako. Lasterketaren ostean, indarrak berritzeko anoa eskaini zen, eta 600 opari baino gehiago zozketatu ziren parte-hartzaileen artean. Antolatzaileen esanetan, Udalak herriko bizitza soziala eta kulturala bultzat-



tzea du helburu, eta horretarako, honen antzeko beste ekimen batzuk egiteko asmoa du urte osoan zehar. Horren haritik, azpimarratzekoa da, korrikalari eta ikusleen artean, Loion Herri Krosaren Egunean 1.500 lagun inguru batu zirela. Eta hogeita hamar herritarrek baino gehiagok hartu zutela parte antolatze-lanetan.

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna
Leizola plaza, 8 - Leizaola (Zamudio)
94 452 74 69

ESTILISTA
EVA ARDINES
Neska-Rutelen Elkarlanean
Asteartea - Ostirala: 9etatik-15etara
Larunbata: 9etatik-14etara
Urribi Plaza, 1 - Behe 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19: (Aurreko txanda)

EGUNEKO MENUAK
ESPEZIALITEA, TORTILLAK
ILI
Leizola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68

Magalarte txakolina
Inaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31
75 cl.
10,75 % vol.
Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Kartel Lehiaketa

San Pedro eta Santa Luzia jaiak direla-eta, Kartel Lehiaketa antolatu da Loiu. Lehiaketan nahi duten guztiek har dezakete parte; adin txikikoek lege-tutorearen baimena beharko dute. Kartelen edukia librea izango da, baina nahitaezkoa izango da testu hau agertzea: Loiu jaiak 2012, San Pedro eta Santa Luzia.

Lanak DIN A3ko formatua eduki-ko dute, eta kartoi mehe baten itsatsita aurkeztuko dira. Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ahal-ko ditu. Kartelak gutun-azal baten barruan sartuko dira. Beste gutun-azal txiki batean datu hauek adieraziko dira: nortasun agiriaren fotokopia, telefono-zenbakia, formatu digitalean egineko kartela, eta parte-hartzailea lanaren egilea dela ziurtatzen duen zinpeko adierazpena. Adin txikikoek gurasoen edo lege-tutorearen baimena eta familia-liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko dituzte.

Lanak Udaletxean aurkeztu ahal-ko dira (Herriko Enparantza, 1), maiatzaren 4ra arte. Kartelak maiatzaren 7tik 16ra egongo dira liburutegian ikusgai, eta hara doazen herritar guztiek eman ahal-ko dute botoa. Epaimahaia lau lagunek osatuko dute eta botorik gehien jasotzen dituzten bost kartelak baloratuko ditu. Epaimahaiaren ebazpena ekainaren 28an jakinaraziko da. Irabazleak 250 euroko saria jasoko du, eta, adin txikikoa bada, materiala erosteko txartela emango zaio. Era berean, 100 euroko akzesita emango zaio herriko egilerik onenari.

Abenturazko bidaia, Marokora

a: Unai Larrazabal

Turismoa, abentura eta elkartasuna uztartzen dituen bidaiatzeko era berria da Raid Pandemonium, eta Joseba García zamudioztarra da haren antolatzalea. Bidaia martxoaren 18tik 25era bitartean egin zen eta parte-hartzaileek Marokoko basamortuaren edertasunari eta gogortasunari egin behar izan zieten aurre. Paisaiaz eta abenturaz disfrutatzeaz gainera, elkartasuna ere eraman zuten basamortura, eta laguntza humanitarioa eta eskolako materiala banatu zituzten raidak igaro zituen herrietan. Parte-hartzaileen artean Carlos Rodriguez eta Jose Manuel Exposito zamudioztarrak egon dira.

“Bidaia erabat berritzailea da”, esan digu Carlosek, “herria beste modu batean eza-gutzeko aukera ematen dizulako”. Zamudioztarrak Seat Panda bat eraman dute basamortura, azaldu digutenez, egitasmoaren baldintzenetarikoa bat autoek gehienez 55 zaldiko ahalmena edukitzea zen, bai eta 20 urte baino gehiago izatea ere. Ohiko lasterketa batean aritu ez baziren ere, orientazioari, trebetasunari, erregulartasunari... lotutako probak egin zituzten Atlas mendikatean. Era berean, Zamudioko Udalak emandako eskolako materiala eraman zuten hango herrieta-ko gazte eta umeen artean banatzeko. Hurrengo alean, abentura honetako zehetasunak kontatuko dizkigute.



BIDE-GORRI
CAFE-BAR
Era askotako pintxoak • Plater konbinatuak
8.00etatik aurrera
Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Tel. 94 452 26 75

BAR BIDE-BI
Zamudio
Aukeratu zurea!
Golzeko 5etatik
aurrera zabalik
Gosari bereziak
Telefona: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendari kudeatzailea
IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA
Torrelarragoiti ind. P.8-B
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
e-mail: gonzalo@vertigosl.es
Tel. 94 452 22 59 • Faxa 94 452 22 34

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA **Txorierrin**

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Tokiko hedabideek TOKIKOM enpresa sortu dute

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren bazkide diren 19 hedabideek eta Topaguneak berak TOKIKOM enpresa sortu berri dute. Sortzaileen artean, AIKOR! Txorierriko herri aldizkaria dago. TOKIKOM tokiko hedabideen etorkizuna elkarlanean diseinatzeko tresna izango da, eta egoera berriei erantzun azkarra ematea ahalbidetuko du. Hala, hiru eginkizun nagusi edukiko ditu. Alde batetik, esparru komunak eraikitzea eta kudeatzea: publizitatea, ekoizpena, teknologia, trebakuntza, barne-komunikazioa... Bestetik, solaskidetzat sendoa lortzea, euskarazko hedabideen sektorearekin eta erakundeen aurrean. Era berean, toki hedabideen integrazio posiblearen diseinua proposatzea du eginkizuntzat, eta horren inguruan adostasuna eraikitzea. Egitasmo honen bidez, barne-kohesioa lantzeaz gain, tokiko hedabideek Euskal Herri mailan zirriborratzaren hasi den euskal hedabideen arteko elkarlana erraztea dute helburu, foro horretara ahots bateratua eramanez.

TOKIKOMek zerbitzu mailako eginkizun zehatzak edukiko ditu: publizitate komunaren kudeaketa, tokiko hedabideentzako plataforma digital bateratua... Horretarako, baliabide propioak izango ditu eta bazkideek metatutako jakintzaz eta azpiegituraz ere baliatuko da.

Lezamako gimnastak, garaipen bila

a: Marta Asanza

Apirilaren 22an, Gimnastika Erritmikoren Txapelketaren finala izango da, Eskola C kategorian. Oraindik ez dago erabakita non jokatu den, baina finalean Lezamako herri ikastetxeko Gimnastika Erritmiko Taldea arituko da benjamin eta kimu kategorietan. Gimnastek ahalegin handia egin dute txapelketa osoa, eta emaitza

onak lortu dituzte. Izan ere, Txapelketako lehen fasean benjamin taldea seigarren lotu zen, eta kimu taldea, hirugarren. Bigarren fasean, berriz, lehenengo postua eskuratu zuten talde biek. Ikusmina handia da kirolari, guraso eta zaleen artean. "Dena dela, garrantzitsuena parte hartzea da, eta gimnastek ondo pasatzea. Eta noski, emaitza ona bada, askoz hobeto", esan digu Marta Asanza entrenatzaileak.

KIMU
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gutiola 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

Club Hípico Aretxalde
Pony club • Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak • Apopilo zerbitzua
Salto • Txangoak • Animalien heziketa
Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoiti Ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

TXAKURREN
Hugialde eta Gernikako
arbolaren trukean
48160 Derio
T: 94 404 21 80
ILE-APALDEGIA

GOXO-GOXO LOHTIZUN
Aretxaldeko zabalik
Ogile egutero
Postaleko enbarkadurak
Garaiozta, 77b
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano
Menu bereko antzerkietan • Egutegiaren eta karta
Etxeko erretorikako platerak • Jantziak eta ebentualak
Bakaria antzerkietan • Jantziak zabalak
B.º Garaiozta, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

Herria martxan! Martxa herrian!

Tximintx Derioko euskara elkarteak Herria martxan! Martxa herrian! ekimena aurkeztu du jendaurrean. Hamabost urtetik gorako lagunei zuzendutako egitasmoa da, eta maiatzaren 11n, 19:00etan, izango da Herriko plazan.

Azaldutakoaren arabera, ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago ibilgailu bat ibiliko da herritik zehar, haren berri herritarrei ematen. Ibilgailu horretan pertsona bi ibiliko dira mikrofonoa eskuan dutela. Bata kanpotarra izango da eta derioztarrak pasiboak direla esango du. Bestea herrikoa izango da, eta herritarrek animatuko ditu plazara joatera, Derio martxan jartzeko eta Derion martxa dagoela erakusteko. Plazan izango da ekimena, eta hark ikuskizun mota bi nahastuko ditu. Batean herritar guztiek hartu ahal izango dute parte, eta bospasei kantu abestu eta dantzatu beharko dituzte, alde aurretik entseguak eginda. Bestean herriko zenbait elkarte arituko dira eta euren jarduerarekin zerikusia duen erakustalditxo eskainiko dute: kirola, dantza... Antolatzaileek zapiak banatuko dituzte parte-hartzaileen artean, bereizgarritzat erabiltzeko. Ekimenak ahalik eta lagun gehien biltzea du helburu. Abestien lehen entsegua martxoan egin da, eta entseguekin Aste Santuko oporren ostean jarraituko dute.



Herriz herri Garmitxaren alde



Elikagaiekiko erabateko intolerantzia duten umeei laguntzeko sortu zen Garmitxa Larrabetzuko elkarteak. Hura heste-etako gaixotasun arraro bat da eta gaixoak oinarritzko formula baten bidez elikatu behar dira, euren gorputzak ez duelako inolako elikagairik onartzen. Elkartek ikerketarako dirua lortzea du helburu, eta horretarako hainbat ekimen jarri dituzte abian: besteak beste, plastikozko tapoiak biltzea eta elkartearen materiala saltzea (kamisetak, pegatinak, eskumuturreko solidarioak...). Martxoan beste ekimen bati ekin diote: elkartasuna agertzeko ibilaldi bat antolatu dute Bizkaian zehar, elkartek ordezkatzen duen gaixotasuna herritarren artean ezagutarazteko.

Elkartasuna agertzeko ibilaldi hori martxoaren 4an hasi zen Gernika-Lumon, eta ekainaren 10ean amaituko da Larrabetzun. "Dagoeneko Gernikan, Mungian, Erandion eta Barakaldon izan gara, eta oso pozik gaude harrera ezin hobea eduki dugulako", esan digute elkartetik. Herriotan stand bat ipini da eta gaixotasunaren berri eman dute han. Horrezaz gainera, elkartearen materiala jarri dute

salgai, eta plastikozko tapoiak bildu dituzte. "Egia esateko, udalek erraztasun handiak ematen dizkigute orokorrean, eta lagun asko hurbiltzen dira gugana informazio bila eta euren ekarpena egitera. Herri bakoitzeko eragileen lanak zerikusi handia izan du horretan, eta komunikabideetatik emandako laguntza ere oso garrantzitsua izan da. Era berean, gizarte sareak ezinbestekoak dira guretzat, gaixotasuna eta hari aurre egiteko antolatzen ditugun ekimenak lagun askorengana ailegatzen direlako". Izan ere, sare erraldoi bat sortu da Garmitxaren inguruan, eta sare solidario horri esker elkar-tea Valentziako ikertzaile batekin jarri da harremanetan. "Lehenengo pausoak egi-ten ari gara, eta gauzak zelan egin behar diren aztertzen.

Bitartean, Garmitxaren alde jarraituko dute herriz herri. Hurrengo hitzordua apirilaren 1ean izango dute Bilbon; apirilaren 15ean, Ugaon; apirilaren 22an, Zea-nurin; apirilaren 29an, Durangon; maiatzaren 13an, Zornotzan; maiatzaren 20an, Basaurin; maiatzaren 27an, Igorren; eta ekainaren 8tik 10era, Larrabetzun.

AM
FORMACIÓN Y TRADUCCIONES

www.am-formacion.com
info@am-formacion.com

Garaiotza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Errementeri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

INGURU ESKOLA
MASA GUSTUK
AZTARKEA OFIZIALA
GASTRO PRESTAKUNTZA
MAI-TIO SNEKOKA
PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
ESKOLAZ KANPOKO KLASAK
ITZULPENA ZERBITZUA

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTIA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN EHRESEKIAK
ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARRETXALDE, 359 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/TAX: 94 455 64 87

LEJARRENE JATETXEA
Garaioitza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



Kaixo, Udaberria!

Negua atzean utzi eta gero, loreei, animaliatxoei eta koloreei tokia egiteko garaia heldu da. Eskien ordeztu bizikleta hartu eta elur-pisten ordeztu bidegorrietatik ibiltzeko garaia, hain zuzen ere. Eguraldiak lehen mailako protagonismoa du Udaberrian, eta jorratu beharreko rola zein den jakinda, eguzkiari behar bezala berotzen hasteko eskatzea besterik ez zaio faltatzen. Kaixo, Udaberria!

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
<http://www.flickr.com/photos/jongoikoh>

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)


LIBRERIA SONDIKA
LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
pazergintza eta eskulanak.

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ATARRABI



Errementeeri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

Txorierri

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Mixtine 6, bajo - 48150 - Sondika (geltokilaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larraldiak: 670 985 885 - www.txorierri.com

t: Gaizka Eguskiza

Ez da Sondikatik zabiltzaten lehenengo aldia. Zelan?

Sondika pixka bat urrun dugu, baina zerbait egiten dugun bakoitzean beti deitzen digute. Bizkaiko beste herri batzuetatik ere deitzen digute beti. Oso gustura gaude.

Sara Cozar eta Joseba Usabiagarekin aritzen zara. Betiko lankideak dira biak, ezta?

Antzerkia ez da telebista bezalakoa. Herriz herri ibili behar duzu, eta hainbat gauza egin behar dituzu lankideekin batera. Lankideak baino gehiago lagunak gara. Beste lan batzuetan ez duzu lankideak hautatzeko aukerarik; guk, berriz, elkarrekin egiten dugu lan, horrela geuk nahi izan dugulako. Zoriontsuak gara.

Antzezlanak gazteleraz egingo duzue, baina euskarazko bertsioa ere badago. Zein duzue nahien?

Berdin digu. Ez dago aparteko ezberdintasunik. Egia da euskaraz saio gehiago egiten ditugula, eta horregatik ateratzen zaigula naturalago.

Euskal filologia ikasi zenuen, baina aktorea izateko utzi zenuen. Horrela hasi zinen?

Aktorea izan nahi nuen, baina etxean zerbait ikasteko esan zidaten, eta euskal filologia aukeratu nuen. Baina banekien sekula ez nukeela filologo lanik egingo. Ez zitzaidan gehiegi gustatzen. Hala ere, izugarri gustatzen zitzaizkidan irakurtzea eta idaztea. Eta gidoilari ibili nintzen *Goenkale* telesailean, esate baterako. Txalo Produktzioetan ere antzezlanak idatzi edo moldatu ditut; Sondikan egindako *Carpe diem*, bat aipatzearren.

Gidoilari ez ezik aktore ere aritu zara Goenkalean. Zer ekartzen dizu burura telesailak?

Aspaldiko kontua da, 1994koa, baina gauza politak etortzen zaizkit burura. Izugarritzko eskola da aktoreontzat, eta tele-

“Aktorea baino lehen p

IKER GALARTZA | aktorea

Euskal filologia ikasteari utzi eta barruko grinak askatu zituen Iker Galartzak: antzeztea eta idaztea. *Goenkale* saioan hasi zen eta azken zazpi urteotan *Vaya semanita* programan aritu da. Martxoan *Carpe diem: amigos para siempre* antzezlanak ekarri digu Sondikara.



OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK
Lasai
Luis M^a Asensio
Osteopata
Larrabari, 1. lona - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA
Unibax dermapindegia
Estetika
Ordulegi jarraitua
Laser-depilazio
Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Gehi-ikusiak, orokorrak
Auzokoen komunitateak
Mantentzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko amariako garbikerak
Irausketak
Zabur bilaketa
Besalde Plaza, 1 - B^a Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

ailazoa naiz"

bista nolakoa den erakusten dizu. Ni due-
la 15 urte ibili nintzen telesailean, 20 urte
nituela, eta oraindik jarraitzen du ikusle
kopuru oso onak izaten. Harrigarria da!

**Vaya semanita saioan agertzeaga-
tik zara ezaguna Euskal Herrian, baina
saioa Estatu mailan ere hartzen dute
erreferentetzat. Zer deritzozu horri?**

Oso saio garrantzitsua izan da Euskal
Herrian, eta kanpoan ere ikusten dute.
Horri esker, Estatuan ere ezagutzen gaitu
jendeak. Era berean, aktoreontzat oso
aberasgarria da hainbat pertsonaia egite-
ko aukera ematen dizulako. Lana gogorra
da, oso erritmo bizia dagoelako, baina
oso gustura ibiltzen gara.

**Duela gutxi eraberritu dute saioa,
eta, horren eraginez, iskanbilak sortu
dira. Hala ere, gero eta ikusle gehiago
izan duzue.... Zelan bizi izan duzue
zuek, saioko kideok, aldaketa?**

Badakigu urtero-urtero daudela alda-
ketak. Aldaketaren berri izan genuenean,
ezin genuen sinetsi: talde paregabea
egon zen, elkar ezagutzen genuen aspal-
ditik... Koadrila desegingo balitz moduan
sentitu ginen. Oso tristea izan zen. Hala
ere, jende berriarekin hasi ginen lanean,
eta eurekin ere oso gustura gaude. Dena
dela, erabakia ez dago geure esku: nagu-
siek erabaki egin dute eta guk hori onar-
tu behar dugu.

**Saio berrian Derioko baserritar
homosexual baten papera jotzen
duzu, Benan. Ezagutzen duzu Derio?
Zelan sortu zen ideia?**

Bai, ezagutzen dut herria. Gidoilarien
kontua da. Haien artean badaude bizkai-
tar asko, eta bertako baserritar homose-
xualen bat ezagutzen dute, agian, eta
hari eginiko omenaldia da. Auskalo! (kar,
kar...). Programa berrian beste gai batzuk
jorratu nahi izan dituzte. Pertsonaiak ere




*"Euskaraz saio
gehiago egiten
ditugu, eta
horregatik ateratzen
zaigu naturalago"*

*"Diru gutxien
ematen duen lana
da pailazoarena,
baina ez dut
inoiz utziko"*

eraberritu dituzte eta horrela sortu da
Benan. Zergatik ez dugu baserritar gay
bat egingo? Ez genion maritxu-ukitu han-
diegi eman nahi, eta jendeari gustatu egi-
ten zaio. Homosexualen elkartetik zorio-
nak eman dizkigute horregatik.

**Telebistari esker lortu duzu ospea,
baina antzerkian oso ibilbide luzea
duzu. Esate baterako, pailazo ere ibili
zara Poxpolo eta Mokolo bikotean.**

Aspaldiko apeta da hori. Duela 12 ur-
te hasi ginen konpainian, herriz herri la-
gunekin-eta... Pailazoa eta zirkoa beti
gustatu zaizkit. Aktore guztiak ez dira pai-
lazo, eta pailazo guztiak ez dira aktore; ni
aktorea baino lehen pailazoa naiz. Euskal
Herri osotik ibili gara eta ahal dudan
bakoitzean ekiten diot horri. Badakit diru
gutxien ematen duen lana dela, baina
argi daukat ez dudala inoiz utziko. Gaine-
ra, umeei gustatzen zaie.



lurrindegia **MAMEN** mertzzeria
Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

harategia - urdaltegia
MIGUEL



ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 + DERIO 48160 * T: 454 52 94

Nire Autocasion NA



**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Indartsu joten, tatamian

a: Gaizka Eguskiza

IRAIA RODRIGUEZ | karateka

Lezamarra orain dela sei urte hasi zen karate munduan. "Aitak esan zidalako ea saiatsu nahi nuen. Eta gustatu zitzaidan. Beste borroka-arte batzuekin ere, taekwondo eta judo kasu, saiatsu naiz, baina ez ditut gustuko. Horietan KO utzi ahal zaituzte". Etorkizun handiko karateka izan daiteke, Iñaki Toledano bere entrenatzaileak azaldu digun bezala, asimilatze-ahalmen handia duelako, eta aurrera nahiko azkar egiten duelako. "Zerotik 10era arte, 9,5 bat da". Gainera, bere adina kontuan hartuta, oso gerriko altua janzten du. "Baina meritua ez du adinagatik, beste batzuek ere kolore altua janzten dutelako oso gazteak direla. Meritua du astean oso ordu gutxi entrenatzen duelako. Iraiak lortu duena lortzeko, beste batzuek gehiago entrenatu behar dute". Horrela, bada, astelehenetan eta asteazkenetan ka-

Iraia Rodriguezek 11 urte baino ez ditu, eta gerriko urdin-marroia janzten du jadanik. Karateka "goiztiarra" dela esan daiteke. Bere armak diziplina eta azkartasuna dira, baina batez ere borroka-arte honetarako duen grina.

rate eskola jasotzen du Lezamako ikastetxean, eta entrenatzaileak ahal duenean, Barakaldora joaten da heziketa osatzera. Txapelketa garaian, berriz, buru-belarri entrenatzen du. Azken garaipen inportantea iaz lortu zuen Valentzian, bertan FEUAMek (Borroka-artearen Espainiako Federazio Bateratua) antolatutako Espainiako Txapelketa irabazi baitzuen kumite kategorian.

"Kumitea borroka da", esan digu Iraiak, "Txapelketan kata ere egin zen, eta

horretan hirugarrena gelditu nintzen. Kata teknikoagoak dira, mugimenduak eta egin behar direlako. Niri kumitea gustatzen zait gehiago, aurkariarekin kontaktua duzulako". Txapelketa hasi baino lehen urduri izaten dela aitortu digu, baina urduritasuna lehenengo txanda egin ostean desagertzen dela. Txapelketaren arabera -hura zein federaziok antolatzen duen aintzat hartuta- Iraiak soilik neskekin edo neskekin eta mutilekin borrokatu behar du, pisu bereko lehiaki-





deekin, adin berekoekin... "Egia esan, niri berdin dit norekin borrokatu, ez dut lehentasunik". Teknikarik ere ez duela adierazi digu. "Kimonoa jantzi eta ateratzen denarekin egiten dut aurrera. Tata-mian oso azkarra eta aktiboa naiz. Nire indargunea horixe dela esango nuke".

Ikasle berezia

Oso gaztea den arren, ez du zalantzarik etorkizunari buruz: karate egiten jarraitu nahi du. "Eta polizia izan". Hori gauzak kontrolpean edukitzea gustatzen zaiolako izango da, beharbada. "Iraia oso ikasle berezia da", dio entrenatzaileak, "Gehiago eskatzen du beti, baina mugak jarri behar dizkiogu motibazioa galdu ez dezan". Toledanoren esanetan, neskatoari oso helburu argiak ezarri dizkiote datozen urteei begira. "Haurren gerriko beltza 13 urterekin eskura dezake; eta lehenengo Dana, 16 urte betetzen dituenean. Handik aurrera, nahi duena". Dena dela, Iraiak txapelketak irabaztea helburu ez duela esan digu, "horiek irabazten baditu, hobeto, noski", baizik eta azterketetara segurtasun handiz joan dadila, beldur barik, "eta hori entrenatuta eta txapelketan parte hartuta lortzen da".

Karatea Lezamarraren pasioa dela aipatu digu lehen, baina hura ez da praktikatzen duen kirol bakarra. "Areto-futbola ere egiten dut". Alex Iraiaren aita da. Datorren ikasturtean DBHko lehenengo kurtsoan hasiko dela azaldu digu, eta gogotik ikasi beharko duela. "Oso neska

"Beste borroka-arteak ez zaizkit gustatzen; haietan KO utzi ahal zaituzte"

"Katak baino, kumitea nahiago dut, aurkariekin kontaktua dudalako"

"Oso azkarra eta aktiboa naiz; horiexek dira nire indarguneak"

aktiboa da eta gauza asko egiten ditu asteen zehar. Baina ikasketek lehentasuna dute, eta gaur egun egiten dituen gauza horien guztien artean aukeratu beharko du, eskolan ere ahalik eta emaitza onenak izateko. Areto-futbola utziko duela dio, karatearekin jarraitu nahi duela. Bere erabakia bat edo bestea dela, gure sostengua edukiko du".



Garmendia ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA



94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

GAMINIZ JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" N

www.gaminiz.com

Amets goxoa

Athleticek Manchester United talde ingelesa hartu eban mendean Europa Ligako final-zortzirenetan. Zurigorriek maisutasunez jokatu eben eta partida biak irabazi eutsiezan deabru gorriei. Garaipen berarengaitik, erakutsitako mailarengaitik eta zaleok emondako erantzuna apartarengaitik, zaleok urteak eta urteak eukiko dogu gogoan kanporaketa. Eta AIKOR! aldizkariak zein hainbat txorieritarrek aukerea euki genduan hori guztia zuzenean bizitzeko.



Asier Saenz (Lezama)

Denporaldi hasikeran, Athleticcek ezin eban imajinau aurten Manchesterren kontra jokatuko ebanik. Ingelesak Txapel-dunen Liga hasi ziran jokatzen irailean, baina abenduan, handik kanporatu zitue-nean, Europa Ligan sartu ziran lehian. Era berean, zurigorriek ligaxka eta kanpora-keta bi gainditu behar izan zituen denpo-ra-tarte berean. Baina amesa egia bihurtu zan, eta inoiz ahaztuko ez dogun kanpo-raketaz disfrutau dogu. Datozan urteotan jarraituko da kanporaketa horren ingu-ruan berba egiten, eta batzuo, zorion-tsuenok, bertan egon ginala esan geinke.

Ez zan Athleticcek Manchesterren kon-tra jokatzen eban lehenengo aldia. Zale zurigorri nagusi-nagusiek oraindino dabe gogoan Europako Kopan 1957. urtean jo-katu zan kanporaketea. *Busby boys* (Bus-byren mutilak) esaten eutsien talde zora-garri horrer, eta tamalez futbolaren histo-ria baltzean sartu ziran urtebete beran-duago, 1958an, zortzi jokalaria hegazkin-istripuan hil ziralako. Joanerako partidana 5-3 irabazi eben bilbotarrek, erabat zuri egoan San Mames futbol-zelaian. Itzulera-koan, oster, 3-0 nagusitu ziran ingelesak Maine Road zelaian. Deabru gorriek sail-katzea lortu eben, baina behintzat garai hatako Europako talderik indartsuenetari-ko bat ikusi eta irabazteko aukerea euki eban Athleticcek.

2012. urtean gauzak erabat ezbar-di-nak izan dira. Bielsa *boys*-ek United hartu eben mendean, bai joanerako partidana, Ingalaterran (2-3), bai itzulera-koan, Bilbon (2-1). Eta ganera joko alaia, azkarra eta



Aratz, Ander, Xabier, Garikoitz eta Gaizka (Loiu, Derio eta Zamudio)



Unai Ibarra (Sondika) eta Urko Real (Asua)



Beñat Lekue (Larrabetzu) eta Mikel Zarate (Lezama)

eraginkorra erakutsi eben zurigorriek. Europa osoak ikusi ahal izan eban bilbota-rren jaialdia. 1957an Carmelok, Oruek, Garayk, Canitok, Eturak, Maurik, Artetxek, Markaidak, Merodiok, Uribek eta Gainzak jokatu eben; 2012an, Iraizoz, Iraola, San José, Javi Martínez, Aurtenetxe, Iturraspe, de Marcos, Herrera, Muniain, Susaeta eta Llorente izan dira heroiak. Gogoan eukite-ko beste hamaikako bat.

Erakustaldia, baita harmailetan be

“Nagusia nazanean, Athleticcek jokatu dituan bezalako partidak ikustea gustau-ko litxakit”, esan eban Óscar de Marcos jokalaria. “Partida sinistuezinak izan dira”, aitatu eban Llorentek. Athleticceko erakus-taldia itzela izan zan berdegunean, baina zaletuek harmailetan emon ebena be ez zan makala izan. Itzulerako partidana, Athleticcek ezin izan eban txartelik salgai jarri, eta zelaia ganezka egon zan. San Mamesetik kanpo be kristoren giroa egon zan egun osoan zehar. Zuria eta gorria nagusitu ziran urian: banderak jarri ziran Udaletxeko eta hainbat etxetako balkoi-etan, lantegietan, tabernetan...; dendari-ek taldeko koloreak azpindu zituen era-kusleihoak; nagusiek eta gazteek kamise-tak eta bufandak jantzi zituen goiz-goize-tik... Bilbok eta Bizkai osoak egin eban bat Athleticcegaz. Eta garaipena ordu txikieta-ra arte ospatu zan.

“Eskerrak final-zortzirenak zirala”, esango dau futbolzalea ez dan edozeinek. Eta zuzen ibiliko da, ziur asko, baina biz-kaitarrok ezagutzen dogu Athleticcek

.....*Harri garria*.....

PLAN RENOBED

Otsailaren 18^{ra} arte

280€

280€-ra arteko beherapena, ohea, koltxoia eta oinarria erostean
SUITE DELUX dendetan bakarrik (Ikusi behean)





SUITE DELUX

ATSEDENERAKO MARKA ESKLUSIBOAK
www.SUITDELUX.com

- 1 Leioa Koltxoi-Denda, 944 316 516
La Avanzada 80 (Bilboko norabidean)
- 2 Arteaga Koltxoi-Denda, 944 545 147
Derioko Apaiztegia
- 3 Lotara Koltxoi-Denda, 943 202 784
Errebal 19, Eibar





*Manchesterreko
kaleak alaitasunez
eta bakez hartu
genduzan Athleticen
8.000 zaletuk*

*Gure jokalariai
dantzari errusiar
trebeenak bezala aritu
ziran, jokoa erabat
menperatzen*

dauan indarra, bakarrik Athleticen daua. Zer gertatuko da zurigorriak Bukaresten egingo dan finalerako sailkatzen badira? Auskalo! Aireportuko langile batek haren esan eban marea zurigorria ikusi eban: "Hobe geunke lan-erreformaren kontra mobiduko bagina". Bai, Bilbon eromena izan zan, baina hori baino handiagoa Manchesterren bizi izan zan. Guztira, 8.000 zaletu joan ginan Ingalaterra aldera.

Inbasio zurigorria

Manchesterreko kaleak alaitasunez eta bakez hartu genduzan Athleticen zaletuek. Partida eguaztenean jokatu zan eta goizean Athletic Uria antzeko bat jarri zan katedraleko atzeko plazan, noria erraldoiaren alboan. Klean alkohola edatea debekauta ei egoan, eta tabernetan Athleticen kamiseta ez jantzeko aholkua zabaldu zan. Egia esan, giro atseginez eta poliziez inguratuta, Athleticen zaleak goiza emon genduan garagardoa ez eze kalimotxo be edaten, eta goitik behera zurigorri jantzita, noski.

Bazkaltzeko orduan kaleko jaia moteldu egin zan, eta marea zurigorria jatetxetara joan ginan indarrak barritzera. Bazkaldu ostean, futbol-zelaia joateko ordua heldu zan. Old Trafford hirigunetik urrun dago, eta zaletu askok eta askok tranbia hartu genduan hara joateko. Tranbiak ganezka ebiltzan eta ahots goxo batek gaztelaz gogoratu euskun txartelak erosteko. Gehienok ez geuntsan jaramonik egin,

baina guztiok egin genduan barre ahotzak "Aupa Bilbao" esan euskunean. "Manchester City uriko beste taldeko zaletua, ziurrenik", pentsau genduan.

Tranbia 15 minutu beranduago ailegau zan Ametsen Antzerkira. Kanpotik ez da uste baizen harrigarria. Inguruan janari azkarra eta futbol-produktuak dagoz salgai hainbat postutan. Zelaiko denda ofiziala bisitatzeko aukerea be ez da alperrik galdu behar. Ingalaterrako beste futbol-zelaietan legez, Old Traffordeko ateak estu-estuak dira eta sartzen zaranean, ez deusie txartela apurtzen. Askoz hobeto



Toño Ibarra (Asua) eta Manchesterreko athleticzale bat



Aitzol Larrabe (Lezama)

Manchesterreko abentura betiko gogoratu gura dogunontzat!

Tranbiako neskaren ahots goxoak adorea emon euskun zaletuoi, partidari baikortasun osoz aurre egiteko. Ez genduan behar, baina, halanda be, eskertze-koa izan zan. Athletic primeran dabil jokatzen aurten eta konfiantza osoz sartu ginan jarraitzaile zurigorriok Ametsen Antzerkira. Zortzi mila ameslariok eserlekua topau baizen pronto hasi ginan abesten. Artean 30 minutu falta ziran partidari hasiera emoteko, baina zirrara berezia sentidu genduan gure mutilak berdegut



Kepa Uriarte, Pablo Lezkano eta Iñaki Furundarena (Larrabetzu)

Kopa irabazi daben taldeen argazkiak ikusgai



Berrogeta hamar urteren ostean Manchesterren jokatzek, eta non eta Old Trafford futbol-zelaian, zaleen euforia biztu baezan, Kopak be ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Barçaren kontra jokatu dau Athleticcek maiatzaren 25ean, orain dala hiru urte bezala. Lagun asko prestaketak egiten dabilz: Madrilera zelan joan, ostatua non hartu, sarrerakaz zer gertatu... Eta Susterrak Zamudioko tabernan omenaldi txikia egin deustie taldearen sorreratik hona Kopa irabazi daben jokalariei. Athleticcek orotara 23 Kopa ekarri ditu etxera: lehenengoa, 1903. urtean; eta azkena, 1984. urtean. Horreek guztiak lortu dabezan taldeen jokalarien argazkiak ikusgai jarri dira tabernan, eta lekua itxi da, oraingo honetan Kopa irabaziz gero, han gaur egungo taldearen jokalarien argazkia be ipinteko. Miren Peñalverrek azaldukoaren arabera, argazkiak Julio bere aitak bildu zituan. "Argazkiak Kopari begira jarri doguz, gure historiaren zati garrantzitsua dala pentsaten dogulako. Ez da bakarrik Athleticeko historia, geu guztion historia be bada". Argazkiak Kopako finala jokatzen dan arte izango dira ikusgai.

nean beroketak egiten zituela ikusi genduzanean, eta geure burua non eta Old Trafforden.

Old Trafford zelaia Ametsen Antzerkia esaten jako, eta bukaera zoriontsua euki eban komedia harrigarria ikusi genduan han zurigorriok. Ingelesak, barriz, beldurrezko film aspergarria ikusi ei eben. Gure jokalaria dantzari errusiar trebee-nak bezala aritu ziran, pelota leku batetik bestera maisutasunez mobiduten eta jokoa erabat menperatzen; ingelesak, oster, bigarren mailako aktore itsusiak izan ziran, baloiagaz zer egin eta Athleticeko eraso zelan oztopatu jakin barik.

Partida bukatu zanean, ezin genduan sinistu. Harro gengoan Athleticcegaz, bai horixe. Baten batek oraindino dauka irribarrea ezpanetan. Irribarre bukaezina. Badaezpadan argazkiak ateraten jarraitu genduan. Momentua geure kamaretan betiko harrapauko bagendu moduan. Partida amaitutakoan, 30 minutu emon genduan zelaian, harmailetatik mobidu ezinik. Beste ahots batek ames goxotik atera ginduzan eta, gazteleraz, handik alde egiteko gonbitea egin euskun. Manchesterren amesaren amaiera izan zan. Hurrengo Bukaresten izan leiteke.



Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 80 | info@txorierri.net
48160 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 81 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ATE IREKIEN JARDUNALDIA

(18:30etatik aurrera)

Apirilaren 19an
Maiatzaren 3an
Ekainaren 3an

BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikaria

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknikaria
- Produktzioa Programatzeko Teknikaria
- Automatizazioa eta Informatikako Sistemetako Teknikaria
- Salmenten eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknikaria
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Teknikaria

1 + 1



... + 1 + 1 + 1 ...



= pila 1

"1 + 1 = PILA 1" bazkide kanpaina

NORI ZUZENDUA:

- Baserri Antzokiko bazkideei.

ZERGATIK:

- Pertsonen proiektua delako, zenbat eta gehiago izan, zabalagoa eta sendagoa.

KANPAINAREN HELBURUA:

- Bazkide bakoitzak bazkide berri bat lortzea.

Ameslari txorierritarrak

Manchesterren kostaldera ailegau zan marea zurigorrian hainbat tanta txorierritar egon ziran. Batzuk hegaldi zuzenak hartu zituen; Asier Saenz lezamarra, adibidez. “Egunenean bertan hartu genduan charterra Gasteiztik. Barikuan bueltau ginan eta itzela izan zan: aireportuan hainbat lagun egozan bufanda eta kamiseta zurigorriak jantzita zituenak. Eta giroa Manchesterren be zoragarria izan zan. Espero genduan baino askoz hobeto ibili ginan”. Aukera bera hartu eban Gorka Carro Sondikako alkateak eta berak be aitatu dau bizi izan zan giroa. “Edozein lekutan egiten genduan topo hemengo batenATEGAZ. Halako giroa bakarrik kopako final baten eza-gutu dot nik. Manchesterren egun itzela pasau genduan eta partidak amaiera bikaina emon eutson jaiari”.

Hegaldi zuzenak berehala agortu ziran eta athleticaleak beste aukera batzuk hasi ziran bilatzen. Unai Ibarra sondikarra, adibidez, Madrilera abiau zan autoz; Madriletik Londresera, hegazkinez; eta Londres-Manchester, autoz barriro. Eguaztenean atera eta barikuan itzuli. “Oso esperientzia polita izan zan. Hango tabernetan hemengo jenteagaz topau ginan. Poza kalean bagengoz bezala izan zan”. Kaleetan, hango batzuk adorea emon euskuen United irabazteko, eurek City taldekoak zirako”.

Aratz Astobieta loiutarraren bidaia be geldialdi batzuk euki zituan.



Gorka Carro (Sondika)



Txato Núñez eta Andoni Aiarza (Zamudio)



Asier Vicario (Lezama)

Aratz bere lagunakaz joan zan: Ander Imaz, Xabier Zubieta, Garikoitz Cortes eta Gaizka Gaztañaga. Hegazkinez joan ziran Londresera, eta hortik Manchesterrera autobusez. Halanda be, gogorrena ez zan bidaia, partidarako txartela lortzea baino. Izan be, koadrilak 17 ordu emon eban ilaran, baina “merezi izan eban”, euren hitzetan. Manchesterren bizi izan ebena zoragarria izan zan. “Aidean nabaritzen zan zerbait berezia zala. Zelaian denpora osoan ibili ginan abesten, eta akabueran buruko mina genduan eta oso kantseta gengoan. Hurrengo egunean Manchester United-eko jarraitzaileek zoriondu egin euskuen garaipenagaitik”.

Nestor Arregi zamudioztarra, barriz, autobusez joan zan Britainia Handira. “Hogeta bat ordu emon genduan bidaiatzen: jipoia itzela izan zan, baina oso giro bikaina euki genduan”. Nestorren ustez, ez dago hitzik bizi izandakoa azaltzeko. “Hara joatea amesa zan eta bertan egia bihurtu zan. Gainera, ez genduan euki arazorik bertoko jenteagaz eta poliziagaz. Buelta apur bat gogorra izan zan. Bidaia osoa partidari buruz hitz egiten emon genduan. Gero, Osasuna ikustera joan nintzan”. Nestorren legez, Beñat Lekue (Larrabetzu) eta Mikel Zarate (Lezama) be autobusez joan ziran Manchesterrera. “Bidaia oso gogorra izan zan, baina merezi izan eban. Joanerako bidaiaiko ames gaiztoak, goxoak izan ziran bueltan. Izan be, giroa, ingelesen harrera eta Old Traffordeko Amets Antzokian bizitako jaia ahaztuezinak dira”.



Fernando Conceiro eta familia (Zamudio)



Nestor Arregi eta lagunak (Zamudio)

Gazteen lonjak: esperientzia pilotua, Sondikan

Arautegia osatzeko prozesua jarri da martxan

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Eskuhartze komunitarioa Sailak eta Gazteria Sailak egitasmo bat jarri dute martxan Sondikan, gazteen lonjek bete behar dituzten gutxienezko baldintzak arautzeko. Egitasmoak hainbat helburu ditu; elkargune hauen gainean dagoen iritzi txarra aldaraztea, tartean.

Janire Akasuso eta Fernan Gardeazabal proiektuaren arduradunak dira. Esandakoaren arabera, Txorierri ez dago arautegirik gazteen lonjen inguruan. Hori dela eta, Sondikako Udalak Mankomunitatera jo zuen, arlo horretan zerbait egiteko eskatuz. "Argi eta garbi gelditu behar da lonjak ez direla arazotzat hartzen. Helburua ez da haiek ixtea, baizik eta bete behar diren gutxienezko batzuk ezartzea. Hala, alde batetik, gazteen eta auzokideen arteko bizikidetasun egokia bermatuko da; eta, bestetik, auzokideen zein gazteen segurtasuna".

Teknikariak lonjaz lonja ibili dira gazteei proiektua aurkezten, eta bilerak egin dituzte gazteen iritziak, kezak eta esperientziak jasotzeko. Guztira 50 lagunen iritzia eraman dute Udaletxera. Horietako batzuk lonjen erabiltzaileak ziren; eta beste batzuek lonja hartu nahi zuten alokairuan. "Gazteak oso parte aktiboa izan dira arautegia osatzeko orduan; izan ere, lonjek bete behar dituzten gutxienezko baldintza horiek eurek proposatu dituzte. Egia esan, sorpresa ederra hartu genuen lonjak bisitatu genituenean. Guztira lau lonja lokalizatu ditugu Sondikan, eta gazteek oso antolamendu egokia dutela ateratu dugu ondorio. Ezarritako barneko arauak, adibidez, guk uste baino askoz zorrotzagoak izan dira".

Gazteen proposamenak zirriborro batean batu eta Udaletxean aurkeztu dira, haiek ere iradokizunak egin eta oni-

ritzia emateko. Horrezaz gainera, bilerak egingo dira auzokide eta lonjen jabeekin, gazteen elkarguneen gaineko informazioa emateko eta haien gainean dagoen iritzi txarra aldarazteko. "Gazteen sozializaziorako guneak direla ulertu behar dugu guztiok".

Onura guztientzat

Baina teknikarien lana arautegia osatzeko prozesua bultzatzetik haratago joango da, gazteen, udalaren, auzokideen eta jabeen arteko arazoetan bitartekari arituko direlako. "Guregana edozein zalantza argitzeko jo dezakete: kontra-

tuak eta aseguruak zelan egin, lege arloko zalantzak, sortu ahal diren ezbeharren aurrean erantzukizuna norena den...". Sondikako egitasmoa Txorierriko gainontzeko herrietara eramango da, eta kasu bakoitzean lonjen gaineko arautegia herriaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta diseinatuko da.

Janire eta Fernanen esanetan, egitasmoak onura handiak ekarriko dizkie lonjen inguruan dauden eragile guztiei. Horrela, lonjak normaltasunez ikusiko dira eta auzokideek zein jabeek zalantza gutxiago edukiko dute lonjak alokatzeko orduan. Era berean, aldean arteko elkar ulertzea errazagoa izango da, eta gazteek zeintzuk diren euren eskubideak eta betebeharrak ezagutuko dituzte. Horri dagokionez, aipatu beharra dago Interneten une bat zabaldu dela, eta han irakurgai jarriko direla lonjen erregularizazioarekin zerikusia duten albisteak, ordenantzak, informazio orokorra eta abarrekoak. Gunea soilik lonjak dituzten gazteei dago zuzenduta, eta gonbidapena beharko dute hara sartzeko.





Berdintasuna eskualdeko enpresetan

Sondika, Derio, Zamudio eta Lezamako Udalek Kontziliazio eta Koerantzukizunaren gaineko Diagnostikoa egin dute Txorierriko enpresetan. Hori udalerrri bakoitzean ezarri den Berdintasun Planaren haritik jarri dute abian, eta, horretarako, EMAKUNDE eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso dute.

Txorierriin 3.000 enpresa inguru dauka. Bertoko Zerbitzuen Mankomunitateak bizitza pertsonala, bizitza familiarra eta lan-bizitza uztartzearen aldeko apustua egin du, hala egiteak enpresetako langileen poztasuna eta fideltasuna hobetzea dakarrelako. Eta ondorioz, enpresen produktibitatea eta errentagarritasuna hobetzea ere bai. Baina haratago joan da, eta koerantzukizunaren garrantzia ere azpimarratu du, gizonezkoek familiari dagozkion eginbeharren ardura hartu eta

enpresetako kontziliazio-neurriei heltzeko. Erakundea arlo honetan geroko akordioak erraztuko dituzten erreminta bila dabil, eta, hasteko, Kontziliazio eta Koerantzukizunaren gaineko Diagnostikoa egin du eskualdeko enpresetan, Behargintza Txorierriekin batera.

Ikerketan Sondika, Derio, Zamudio eta Lezamako enpresek hartu dute parte, eta baliagarria izan da, eskualdeko enpresetan kontziliazioa zelari kudeatzen den jakiteko. Egitasmoaren arduradunen esanetan, Txorierriin ateratako ondorioak Euskadin, modu globalean, kontziliazio arloan gertatzen ari denaren isla dira. Horrela, langileek esparru honetako neurriak hartzeko eskatzen dute, eta enpresariak politika horiek ezartzearen gero eta aldekoagoak dira, errendimendu handiagoa ekarriko dutelakoan.

Eragileen inplikazioa

Txostenaren arabera, kontzientzia zioa apur bat handiagoa da teknologia arloko enpresetan. Horiek, esate baterako, jaiegunak ematen dizkiete langileei hainbat arrazoiengatik: gai pertsonalak, gaixotasuna, heriotza... Era berean, hango langileek malgutasuna dute edozein kudeaketa egiteko, eta, etxean larrialdia badago, lanetik ateratzeko. Bariku arratsaldea ere libre izaten dute, eta opor-

egutegi malguaz gozatzen dute. Beste neurri batzuek, osteratzen, lan-aste trinkotua edo lanbide-atsedena kasu, oso presentzia eskasa dute enpresetan. Bestetik, gehienbat emakumezkoak dira kontziliazio-neurriak eskatzen dituztenak, adingabeak edo adinekoak euren ardurapean emakumezkoek zein gizonezkoek badi-tuzte ere.

Laburbilduz, langileak pozik egotea eta euren bizi-kalitatea hobetzea ezinbestekoak dira, enpresen lehiakortasun-mailak handitzeko. Prozesuan oso garrantzitsua da eragile ekonomiko eta sozialen inplikazioa, eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea eta Behargintza Txorierri horretan dabilta, enpresekin batera lan egiteak emaitza positiboak ekar ditzakeela badakitelako.

*Langileak pozik egotea
eta euren bizi-kalitatea
hobetzea ezinbestekoak
dira, enpresen
lehiakortasun-mailak
handitzeko*

"Euskal Herria da bizi izan naizen le

ALBERTO DANIEL GAINZA | argentinarra

Atal berri bat jarri dugu martxan Aikor! aldizkarian, Txorierritartuak. Bertan atzerritik etorri, eta gure herrietan bizi diren lagunen berri emango dugu. Atalari hasiera emateko, Alberto Gainza argentinarraren bisita jaso dugu. Alberto hainbat lekutan ibilia da, eta gaur egun Sondikan bizi da.

a: Itsasne Zubiri

Zergatik etorri zinen Txorierrira?

Duela bost urte erabaki genuen Euskal Herrira etortzea. Garai hartan Estatu Batuetan bizi ginen, baina ez geunden gustura. Emaztea hemengoa da eta berak proposatu zuen hona etortzea. Gainera, koinata ere Sondikan bizi zen, eta oso pozik zebilen. Baldintza bakarra jarri nuen: herri txiki batean bizi nahi nuen, beti hiri handietan bizi izan bainaitz.

Zenbait lekutan bizi izan zara: Argentina, Estatu Batuak, Venezuela eta Euskal Herria. Non egon zara ondoen?

Argentinan gustura ibili naiz, baina krisia besterik ez dut ezagutu bertan. Euskadin ere oso gustura nago.

Zeintzuk dira bakoitzak dituen alde onak eta txarrak?

Argentina nire herria da: zoragarria da, jende jatorra, eguraldi ona... baina politikariak oso txarrak dira; Estatu Batuetan erraztasunak ematen dizkizute lan egiteko, baina kontsumo eta itxurakeria handia dago; Venezuela oso herri polita da, baina ez dago segurtasunik eta desberdintasun itzelak daude gizarte mailan; bizi izateko, ondoen Euskal Herrian: txikia da eta jendea jatorra da. Denetarik duzu eskura. Alde txar bakarra da askatasun ideologikoa mugatua dela.

Angolan eta Mozambiken ere ibili zinen lanean...

Bai, izatez auzitegiko antropologoa naiz. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) hainbat herritara bidali ninduen pertsonak identifikatzera. Mozambiken, Angolan.... egon naiz Afrikarrak hainbeste sufritu arren, oso jatorrak eta esker onekoak dira. Bosnian ere egon nintzen gerra bukatzeaz zegoenean. Infernua bezalakoa izan zen: gizakiok egin ahal ditugun gauzarik txarrenak bertan ikusi nituen. Erlijio eta politika



GUEDAN
servicios deportivos, s.a
Jesúen Bihotza plaza, 5 - Euskalduna er. 7, 1. dptoa
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietta

Oasien zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-PLANTEAK - ORTUDUNTZA-ESTETIKA
DENTARAK ELIZ-HELDUMAK

Dr. Amela kalea, 11 - 1. ezk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 453 13 70

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

kurik onena"

mailako gatazka zela-eta, 50 urtean bakan bizi izan den gizartea elkar hiltzen hasi zen, senideen artean, auzokideen artean.

Baina hemen beste lan bat dauka-zu. Autoak garbitzeko enpresa sortu duzu...

Estatu Batuetan esperientzia hartu nuen arlo horretan, eta hemen nire enpresa sortzea erabaki nuen. Autoak garbitzeko enpresa eratu nuen, eta, hasiera-hasieratik, argi nuen zerbait berritzailea izan behar zela. Nire enpresan ibilgailuak garbitzen dira, baina haiek dauden lekura joaten gara, bezeroei denbora aurrezteko eta eurentzat erosoagoa izateko. Euskal Herrian, legeria zorrotza dago ingurumenari buruz, eta ura jasotzeko eta birziklatzeko sistema asmatu eta patentatu genuen.

Zure ustez, zelan hartzen ditugu euskaldunok atzerritarrak?

Ondo. Esaten da euskaldunak oso irekiak ez direla, eta egia da, agian. Hala ere, itxura horren atzean zintzoak eta zuzenak dira.

Futbolzale sutsuak omen zarete argentinarrak. Egia da?

Bai. Eta futbola oso termometro ona da herriko gogo-aldatea neurtzeko. Futbola aitzakiatzat hartzen dute benetako arazoak estaltzeko. 1978an, esate baterako, Videlaren diktadurak Argentinan egin



zen Munduko futbol Txapelketa erabili zuen giza-eskubideen kontrako gehiegikeriak estaltzeko. Izan ere, futbolarri osoa geldiarazten du. Selektzioak jokatzeko duenean, eskolak itxi egiten dira. Eta ospitalera edo aduanara joaten bazara gerta daiteke bertan inor ez egotea. Eta hartzen bazaituzte era txarrean egingo dute, ziur asko. Guztiok dugu barneratuta eta naturaltasunez ikusten da.

Psikologoak ere omen zarete... Zuk Psikologia ere ikasi zenuen...

Bai. Proporzionaliki, psikologo gehien duen herria Argentina da. Hitz egitea zein entzutea gustatzen zaigu. Euskaldunok ez dakizue guk bezain ondo entzuten.

Historiazalea

Historia izugarri interesatzen zaio Albertori. "Batuetan pentsatzen dut iraganean eta orainaldian aldi berean bizi naizela. Historia oso garrantzitsua da errepikatu egiten delako. Beraz, iragana ezagutu behar da, orainaldia hobeto ulertzeko, eta etorkizuna hobeto planifikatzeko". Albertok ikerketa batzuk egin zituen Argentinan, eta gaur egun, Gerra Zibilak Txorierrin eduki zuen eragina aztertuta nahi du. "Batez ere alde militarra baztertuta, hau da, herritarrek zelan bizi zituzten gerra eta gerraostea". Horretarako, ez du euskara ikasi behar, baina argentinarrari ikastea gustatuko litzaioke. "Emaztea eta seme-alabak euskaldunak dira; nik inoiz ikasiko dut. Tamalez, lana dela eta ezin naiz euskaltegiara joan. Hitz batzuk badakizkit, eta haiek egunero erabiltzen ditut".

*Argentinan, Venezuelan,
eta Estatu Batuetan
bizi, eta Angola,
Bosnia edo Haitin
egin du lan Albertok*

*"Euskaldunak ez
zarete oso irekiak,
baina itxura horren
atzean zintzoak
eta zuzenak zarete"*

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragoiti ind. P-7
48170 Zamudio (Bizkaia)

Restaurante
JANA JATEKOA



Eguneko menuak
Menu bereziak
Jainartzeak, bataioak eta ezkontzak



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

Zaintza partekatua

t/a: Itxaso Marina

La Terraza alkarteko kidea da Jesús. Alkarte hori gogotsu dabil beharrean, seme-alabak daukiezan senar-emazteak banantzen edo dibortziate badira, legeriak zaintza partekatua jo daian lehenengo aukeratzat, eta epaileek halan ezarri daien euren ebazpenetan. Horren haritik, hainbat udalengan zaintza partekatuaren aldeko mozi-
noa aurkeztu dabe udalbatzek onartzeko, eta igaz lege-proiektua aurkeztu eben Eusko Legebiltzarrean. Zaintza partekatuak defendatzen dau guraso biek eskubide eta betebeharrak berberak daukiezala, seme-alaben hazkuntzari, zaintzari eta heziketari jagokenez. Eta seme-alabek be eskubidea daukiela aitagaz eta amagaz bardintasun-egoeran izateko, modu naturalean eta osasuntsuan.

Zamudiora Deriotik joanez gero, “Umeagaitik: custodia compartida” dinoan pankartea ikusiko dogu baserri baten burdin hesian. Furgoneta bat be badago askotan handik eta hemendik ibiltzen dana leihoetako kristal guztiak lelo bera daukien paperez beteta. Jesús García zamudioztarra da zaintza partekatua eskatzen dauena.

Zamudioztarrak azaldutakoaren arabera, gurasoen artean akordiorik ez dagoanean, epaiketan ezartzen diran bisitaldi-erregimenak erabat kaltegarriak dira seme-alaben zaintzarik ez daukientzat; aitarentzat, kasu gehienetan. Horren ondorioz, oso denpora gitxi pasaten dabe seme-alabakaz, eta, beste alde batetik, galarazoten jake umeen heziketa-prozesuan parte hartzen. Se-

me-alaben garapenerako garrantzitsuak diran gaietan be, ez dabe eukiten erabakiak hartzeko modurik, eta askotan ez dabe jakiten zeintzuk diran umei jagokezan kontu inportanteak; edo berandu eukiten dabe halako kontuen barri. “Egoera honetan gagozanok oso txarto pasaten dogu, eta gure familiak be bai. Baina gehien sufritan dabenak umeak dira, geuk egoerea ulertzen ez badogu, harek askoz gitxiago ulertzen dabelako. Zaintza partekatua umeakaitik eskatzen dogu, eurentzat oso onuragarria dala uste dogulako”.

Gaur hobeto

Eretxi asko dagoz zelan izan beharko litzaken zaintza partekatua. Batzuen ustez, gurasoetariko batek denporearen % 50 pasau beharko leuke umeakaz; eta beste gurasoak, beste % 50. Seme-alabak familiaren egoitzan gelditu, eta handik

Zaintza partekatuak defendatzen dau umeek eskubidea daukiela aitagaz eta amagaz bardintasun-egoeran izateko

“Denporea zelan banatzen dan ez da inportantea, ezpada umeek inoiz ez daiela gurasoetariko baten faltea nabaritu”





mobidu behar diranak gurasoak eurak dirala pentsaten dabe beste batzuek. Jesúsek be badauka bere eretxia. "Umeen beharrianak hartu behar dira kontuan, eta gurasook beharrian horreetara egokitu behar gara. Denporea zelan banatzen dan ez da inportantea, neure ustez. Inportanteena da seme-alabek behar daben edo gura daben guztietan jo ahal izatea guraso biakana, eta aitak eta amak be hori egiteko erea eukitea. Hau da, umeek inoiz ez daiela gurasoetariko baten faltea nabaritu".

Zaintza partekatua ahalik eta lasterren ezarteko eskaria egin dau Jesúsek. "Gaur hobeto, bihar baino. Umeek ezin dabelako itxaron. Gainera, zuzengabeke-ria asko egin dira eta lagun askok denpora luzea daroe seme-alabak ikusi barik. Helduok ados jarri ezin bagara, umeek ez daukie errurik". Klean gero eta oihartzun handiagoa daukan gaia da, eta, zamudioztarrak aitatu deuskunez, herritarrek atxikimendu handia erakusten deusie. "Azken baten, geure seme-alabakaitik burrukatzen dogu, baina zeuen seme-ala-

bakaitik be bai, zeuen lobakaitik... guztion umeakaitik". Haren eretxiz, agintarien esku dago arazoaren konponbidea, "eurek daukielako legea aldatzeko ahalmena. Zaintza partekatua lehenengo aukeratzat daukie Bartzelonan eta Valentzian, eta gura dogu Euskadin zein Estaduko gainerrako erkidegoetan be halan izatea". Jesúsek esan deusku mozinoa aurkeztuko dauela Txorierriko udal guztietan, beste eskualde batzuetako instituzinoek egin daben bezala, hemengo udalek be bat egin daien zaintza partekatuagaz.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa C/157
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

ETXADI ADMINISTRACION de FINCAS

Jabeen erkidegoak, garajeak eta lokalak ●
Diru-laguntzak lortzeko izapideak: etxaurreak, teilatuak.... ●
Arreta pertsonalizatua ●
Administratzaile kolegiatua ●

San Miguel, 4 - Amorebieta-Etxano etxadi@gmail.com Tel.: 94.630.88.65

Zamudioko titana basamortua konkistau nahian

t/a: Itxaso Marina

Antolatzaileen esanetan, *Milenio Titan Desert* lehiaketean nork bere burua gainditzea helburu dauen lasterketea da. Eta erronka handia dakar, parte-hartzaileek basamortuari egin behar deustielako aurre, beroari eta distantziari. Baina ez da zoroiei zuzendutako lasterketea, ez; sakrifizioa egin eta saria topetako prest dagozanei zuzendutakoa baino. Bizikletaren zaleentzako saioa da, euren sasoi fisikoa eta indar mentala probau gura dabezanak. Ausartentzako lasterketea da, euren mugak ezagutu eta hareei aurre egiteko prest dagozanentzat. Halan, bada, sei egunean zehar txirindulariek harea eta dunak zehartu beharko dabez, lurrezko eta hareazko pistetatik. Seirehun kilometro inguru egin beharko dabez.

Ausarta horreetako bat Rubén Glera zamudioztarra dogu. Zamudio Kirol Klubaren presidentea izateagaitik ezagutzen dogun arren, txirindularitzaren zale amorratua da eta kirol hau orain dala 18 urte hasi zan praktikaten, futbolaria izateari itxi eutsanean. "*Titan Desert* lasterketea lehendik ezagutzen neban, eta mendiko bizikleta arloan egin ahal ziran gauzarik gogorrenetarikoa zalakoan nengoan. Baina abenturea eta bestelako erronkak oso deigarriak dira niretzat".

Erlojuak-eta merkaturatzen dituan enpresa batek eskaintza zabaldu eban bezeroen artean: pultsometro jakin bat erosten ebenek aukerea eukiko eben Milenio Titan Desert lehiaketan parte hartzeko. Rubének izena emon eban eta enpresatik deitu eutsien, Gironara joan eta Montseny natura-parkean hautatze-probak egiteko. Estadu eta Portugaleko 20 lagun ibili ziran han norgehiagoka; 14 gizonezko eta 6 emakumezko. Enpresak bederatzi kirolarik osatutako taldea sortzeko asmoa eban: sei gizon eta hiru emakume. Rubén bosgarrena sailkatu zan. "Zazpi proba fisiko egin behar izan genduzan, eta pultsazioei lotutako test bat. Probak apur bat gogorrak izan ziran, zero

Apirilaren 29tik maiatzaren 4ra bitartean *Milenio Titan Desert by Gaes* lasterketea egingo da Marokoko basamortuan. Rubén Glera zamudioztarrak parte hartuko dau Polar taldeagaz. Gogor dabil entrenaten, erronkari ahalik eta indartsuen aurre egiteko.



*"Lasterketa osoa egitea
dot helburu; hau da,
heldu. Esperientziaz
disfrutau eta ha
kontau ahal izatea"*

azpiko zazpi gradutan egon ginalako, eta izotza egoalako. Bizikleta barik korrika egin behar izan genduan, bizikletaz ibilita ginkana antzeko baten parte hartu, kro-noigoerea, 40 kilometroko lasterketea..."

Hilabete eskasa

Montseny natura-parkean bizi izanda-koa "apur bat gogorra" izan bazan be, as-koz gogorragoa izango da zamudiozta-rrak Marokoko desertuan topauko daue-na. Gainera, etapa nagusia Atlas mendika-tearen hegoaldean egingo da. "Entrena-mentua eta beharra buztartzen saiatzen nabil eta egunero 80-90 kilometro egiten ditut. Asteburuetan goietako bizikletan entrenaten dot neure burua, eta Astunera joaten naz horretarako". Hilabete eskas falta da Rubén Marokora abiatzeko, eta edozein kirolarik bizitza osoan euki leike-an esperientziarik ziragarrietariko bat bizi izateko. "Kirolari profesionalak badagoz, Titan bezalako lasterketetan parte har-tzen dabenak. Eta horreek, hain zuzen, dira irabazten dabenak. Gurea beste filo-



sofia bateko lasterketea da, nire ustez: ahalik eta arazo gutxi euki eta lasterke-tea osoa egin; hau da, heldu. Eta batez be esperientziaz disfrutau eta ha kontau ahal izatea".

Hasieran aitatu bezala, Rubén Zamu-dio Kirol Klubaren presidentea da, baina Txirrin-txirrin alkarteko kidea be bada. "Txirindularitza gehien praktikaten di-ran kiroletarikoa ez da, beharbada. Baina aukerea dogu herrian bertan ha egiteko. Alkartek urte osorako ekimenak eta urte-

erak antolatzen ditu eta gura dauenak egin ahal dau bat gugaz". Hau lehenengo aldia da zamudioztarrak hain proba zo-rratz baten parte hartzen dauena, eta ikusmin handia sortu da herrian eta lagu-nen artean. "Ibiliz naz hemendik egiten diran mendiko bizikletaren inguruko pro-betan: Euskadiko Txapelketea, Lezamako Infernua...". Basamortuaren gordintasanari aurre egiteko momentua ailegaten dan arte, handik eta hemendik dabil bizikle-taz, mendian gora eta mendian behera.

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
T: 94 406 08 08
Móvil: 607 406 613

Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA
Mehon
www.PATXI.COOP
Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✉ faxa: 94 452 25 67
patxiscoop@patxi.coop

GORBEIA MERTZERIA
Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Euskara borborrean



BERBALAGUN TALDEA, DERIO



t/a: Itxaso Marina

Goizeko 9ak dira eta, bariku guztietan bezala, hiru emakumeek Derioko eskola-ko atean egin dute topo. Ane euskaldun zaharra da, eta Rakel euskaltegian dabil ikasten. Euren Berbalagun taldea elkartzen iaz hasi bazen ere, hau ez da egitasmoarekin duten lehenengo harremana, orain dela urte batzuk ere beste talde batean parte hartu baitzuten. Ainhoak, orde, euskaltegira joateri utzi dio. "Eta

hizkuntzarekin harremana galdu nahi ez nuen, modurik egokiena eta eraginkorrena haxe zela pentsatu nuen". Anek esan digun bezala, bera gernikarra da eta Derion 15 urte daramatza. "Herri euskaldun batetik nator eta faltan sumatzen nuen familiatik kanpo ere euskaraz aritzea. Berbalagun egitasmoari esker bete dut hutsune hori. Gainera, askok proiektuan parte hartzen dudala dakitenetik egiten dute nirekin euskaraz, haiek berbalagunak ez badira ere". Bestetik, Rakelek

Anek, Ainhoak eta Rakelek Txorierri osoan hedatuta dauden Berbalagun talde-
etako bat osatzen dute. Lehenengoa irakaslea da, eta beste biek etxean egiten dute lan. "Baina batez ere amak gara". Eta hori da hain zuzen lotzen dituzten ezaugarrietariko bat. Amak izatea, eta euskaraz egin nahi izatea.

hizkuntza praktikatu beharra zuen. "Nire ingurua erdalduna da eta, normalean, ez dut euskaraz hitz egiteko aukerarik".

Kafe bana hartzeko biltzen dira, paseatzeko... eta Inauterietarako mozorroak ere prestatu dituzte, euskaraz aritzen ziren bitartean. "Seme-alaba txikiak edo gaztetxoak ditugu eta, ondorioz, gai asko ditugu komunean. Baina egunerokotasunari lotuta dagoen edozein gai dugu hizpide: futbola, postre hau edo bestea zelan prestatu...". Berritsuak direla aitortu dute,

Erraztasuna irabazi dute euskaraz hitz egiteko orduan, eta lotsa galdu dute

eta elkarrekin oso gustura daudela. Hain gustura, ezen gehienetan ordubeteko geldialdia ordu biko geldialdi bihurtzen baita. Era berean, elkar ikusten duten bakoitzean, ez dute euskaraz aritzeko aukera galtzen. "Herrian, eskolan, dendan, tabernan, etxerako bidean..."

Hizketaldi atsegina

Berbalagun egitasmoan aritzea oso baliagarria dela esan digute. "Ainhoa, esate baterako, erraztasun handiagoa du hitz egiteko orduan, eta esaldiak ez ditu hainbeste pentsatu behar", azaldu digu Anek. "Eta nik lotsa kendu dut", gaineratu du Rakelek, "lehen lotsa handia ematen zidalako euskaltegitik kanpo euskaraz aritzeak, baina gaur egun, ez". Erraztasuna lortu ez ezik euskara maila hobetu ere egin dute. Hala ere, gramatikari garrantzi handiegirik ematen ez diotela aitortu digute, eta esandakoa oso astakeria handia ez bada, ez diotela elkarri zuzentzen. "Helburu nagusizat hitz egitea dugulako, eta ahaleginak horretara zuzentzen ditugu". Anek bizkaieraz aritzea ere aberasgarria dela azaldu digute, eta euskalki hone-tako hitz batzuk ikasi dituztela.

Seme-alaba txikiak dituztenez, ezin dute Berbalagun egitasmoaren haritik antolatzen diren ekimen askotan parte hartu, eta hori da duten pena bakarra. "Oso inportantea da guretzat elkarrekin egon eta euskaraz aritzea. Aukera gutxi ditugu herrian euskaraz egiteko... Beno, aukerak badaude, beharbada. Baina gehienetan erdaraz egiten dugu, lotsagatik, baregarri gelditzeko beldurragatik... edo euskalduna nor den ez dakigulako. Pixkanaka-pixkanaka segurtasuna irabazten goaz, eta herrian euskaraz non egin daiteken ezagutzen, eta norekin".

Barikuetan goiz-goiz bildu eta euskarazko hizketaldi atsegina izatea hiru emakumeen egunerokotasunaren parte bihurtu da. "Eta atsedena ere bada, deskonektatzeko aukera ematen digulako". Goizeko solasaldiak luze jotzeko asmoa dute la ziurtatu digute.

sarrerren salmenta
944 310 310
www.bbk.es
bbk

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELEDEGAN
Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago

BFA DFB

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA



"DINBI DANBA"
Hipo eta Tomax pallazoak
Indiar eta cowboy-en istorioa
4 urtetik aurrera
Apirilak 22, 17:00
Prezioa:
-12 urte: 5 €
+12 urte: 8 €

ZINEA

BLANCANIEVES (MIRROR, MIRROR)
98' AG (ESTREINALDIA 2D)
Apirilak 1, 17:00-19:30

LORAX
86' AG (3D)
Apirilak 13, 19:00
Apirilak 14, 18:00
Apirilak 15, 17:00

THE ARTIST
98' AG (2D)
Apirilak 14, 20:30
Apirilak 15, 19:30

IRA DE TITANES
100' EG-12 (3D)
Apirilak 20, 20:00
Apirilak 21, 18:00

INTOCABLE
115' EG-7 (2D)
Apirilak 21, 20:30
Apirilak 22, 19:30

LA BELLA Y LA BESTIA
93' AG (3D)
Apirilak 27, 19:00
Apirilak 28, 18:00
Apirilak 29, 17:00

ESTO ES LA GUERRA
98' EG-7 (2D)
Apirilak 28, 20:30
Apirilak 29, 19:30

2D: 4 € 3D: 6 €

*Zinema / produktorearen baimenaren arabera programazioak aldatuak jasan ditzake

t/a: Gaizka Eguskiza

Santimami auzoa Derion dago. Industrialdeek eta baserriek bat egiten dute han, Asua ibaiaren inguruan. Baina paisaiaren betiko harmonia bertan behera geratu da: gurdi koloretsu bi daude bertan. Barrutik Andrek eta Judithek osatutako bikotea atera da. "Abenturazaleak gara. 2000. urtean erabaki genuen kanpora joatea, norabide argirik eduki barik. Eguzkiaren atzetik gabiltza". Bikotea Holandakoa da eta eurekin batera alaba bik, hiru zaldik eta bost txakurrek bidaiatzen dute.

Abenturari hasiera eman baino lehen, bidaiak egiten zituzten furgonetaz, baina bidaiak hau gurdiz egin nahi zuten. "Era ekologikoan bidaiatzen dugu. Ez dugu gasolinarik behar eta eguzki-plaka batzuei esker lortzen dugu energia. Merke-merke ateratzen zaigu leku batetik bestera joatea". Holandatik atera zirenean gurdi bakarra erabiltzen zuten, baina gaur egun bi dituzte. "Neskak nagusiagoak dira eta euren lekua eskatzen zuten". Beraz, beste gurdia familiak berak eraiki eta arrosaz pintatu zuten.

Bidaiatzen dutenean, eguraldiari erreparatzen diote lehenik eta behin. "Negua gogorra izan da euri asko egin duela-

Eguzkiaren atzetik

Guztioi gustatzen zaigu bidaiatzea, baina nork emango luke 10 urte leku batetik bestera? Judith eta Andre bikote holandarrak euren zaletasuna bizimodu bihurtu zuen lehengo hamarkadan, eta harrezkeror Frantzia eta Espainia bisitatu dituzte. Azken geldialdia Txorierrin egin dute, eta bertan AIKOR! aldizkariarekin egon dira.

ko. Hotza jasan ahal dugu, baina euria arazotsua da guretzat: arropa eta txakurrak busti egiten dira...", esan digu Judithek. Era berean, familia dagoen lekuaren ingurua ikustera joaten da Andre arratsaldeetan bizikletaz. "Horrela, aukera dugu

lekua nolakoa den ikusteko, eta hobeto planeatu ahal dugu bidaiak: nora joatea merezi duen...", dio gizonak.

Beste alde batetik, gurdiz bidaiatzeak baldintzak dakartza: esate baterako, ura eta belarra behar dituzte zaldientzat. Gainera, bide txikiak nahiago dituzte, bertan trafikoa ere txikiagoa baita, eta eurek erosoago bidaiatzen baitute. Eta horregatik gustatzen zaie Frantzia. Estatu espainola ere ezagutzen dute, iparraldea, batik bat. "Duela bost urte sartu ginen Espainian. Euskal Herriaz gainera, Kantabria, Asturias eta Galizia ezagutzen ditugu. Ez gara hegoaldera joan, belarrak ez dagoelako".

Euskal Herria

Euskal Herria polita iruditu zaie, baina ez dute hemen gelditzeko asmorik. "Arriskutsua da, errepideak autoz beterik daudelako. Eta bide txikirik ez dago, eta ondorioz, denbora pilo bat ematen dugu leku batetik bestera joateko. Gainera, Euskadiko orografia ez zaigu komeni: beti gabiltza aldapan gora eta aldapan behera, eta zaldiak nekatu egiten dira". Estatuan beste arazo bati egin behar izan diote aurre: polizia. "Behin eta berriro etortzen zaigu nortasun agiria eska-





tzera eta nor garen galdetzer. Oro har jatorrak dira, baina guretzat oso astuna da herri guztietan poliziari azalpenak eman behar izatea. Batzuetan hiru aldiz egunean eskatu digute nortasun agiria, eta kriminalak bezala sentitu gara”.

Baina gauza guztiak ez dira txarrak Estatuan. “Hainbat kultura uztartzen dira hemen eta nork berea bultzatzen du. Aniztasuna ona da; Europako herri guztiak berdinak izango bagina oso aspergarria izango litzateke. Frantzia egon ginean, okindegiek eurek egiten zuten ogia; hemen, aldiz, gehienek izoztuta erosten dute. Ez zaizkigu horrelakoak gustatzen, artisauen lana galtzen ari delako. Tamalez, gaur egun joera nagusia da Europa osoan”.

Bizirauteko modukoa

Euren bizimoduak lasaia dirudi, baina beti dago zer egin. “Animaliak zaindu, ogia egin, belarra eta egurra bilatu, jantaria erosi...” Batzuetan azoketan hartzen dute parte dirua irabazteko. Judithek fantiazko makillajeak lantzen ditu, eta Andrek argazkiak atera, inprimatu eta saldu egiten dizkie bezeroei. Bidaian hartutako argazkien postalak ere saltzen dituzte. “Bizirauteko ematen digu, baina ez da erraza”. Egunen batean liburuak idatziko dute euren bidaiaren berri emateko. “Hamar urte daramatzagu txi-roak bezala bizi izaten; ea liburuak laguntzen digun aberatsak bezala bizi izaten (kar, kar...)”.

Bidean egiten dituzten lagunek askotan laguntzen diete. “Jendea jatorra da leku guztietan eta normalean primeran tratatzen gaituzte. Jakin-mina dute eta guregana hurbiltzen dira, eta askotan jantaria ere ekartzen digute. Egunero-egunero

*“Euskal Herria polita
baina aldapatsua da.
Gainera, trafiko
handiegia dago eta
bide txikirik ez dago”*

*“Pribilegiatuak gara:
nork du aukera bere
etxea eraikitzeke edo
hondartza zoragarriak
egunero ikusteko?”*

dugu janaria, nahiz eta guk batzuetan sosik ere ez irabazi. Pribilegiatuak gara: nork du bere etxea eraikitzeke aukera?; nork du hondartza zoragarriak egunero ikusteko aukera? Eta bitartean lagun jatorrak ezagutu ditugu leku guztietan”.

Bizimodu ezohikoa da gurasoentzat, baina are gehiago alabentzat. Judithek berak ematen die eskola Interneten laguntzarekin. “Heziketa ezberdina dute: gauza gutxiago dakite gai batzuei buruz, ziurrenik, baina askoz gehiago dakite beste batzuei buruz. Historiaren edo geografaren gainean ez dute liburuetan irakurtzen; baizik eta, bidaiari esker, bizi egiten dituzte. Hizkuntzei dagokienez, euren adineko neska-mutilek baino askoz gehiago dakite. Eta zorionez, izugarri gustatzen zaie irakurtzea. Asko ikasten dute, baina beste era batean”.

Hala ere, gazteek bizimodu nomada baino ez dute ezagutu, eta gurasoek hori aldatzea nahi dute. Izan ere, datozen hila-beteotan Frantzia aldera joango dira etxe finkoa topatzera. “Alabak nerabeak dira eta laster ez dute gurasoekin leku guztietara joan nahi izango. Neskek eskatu baino lehen, guk bitzta normala eroateko aukera eman nahi diegu. Eurek ez dute nahi, baina bizimodu sedentarioak ere baditu abantailak”. Frantzia etxe finko batean daudenean bidaiatzen jarraitzeko asmoa dute, baina oporraldi arruntetan, udan-eta. Eta betiko moduan, eguzkiaren atzetik ibiltzen jarraituko dute.

www.roulotte-papillotte.com

makla
arkitektura

Teknologi Parkeko Bkontegia 804 E - 107 B
94 43 79 21 4860 Denia Biziak
653 06 386 estudio@maklaarkitektura.com
620 080 11 www.maklaarkitektura.com

t i k
t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Jantetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERIKO GORZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefono 94 454 07 98 Mungaiako auzotik, 25
Fax 94 454 14 11 48160 DERIO

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Medikuntza pertsonalizatua

t: Xabier Díaz, BTEKeko zuzendaria

Giza genoma Proiektua 1990. urtean jarri zen martxan, Estatu Batuetan. Giza genomak dauden 20.000-25.000 geneak identifikatu eta kartografiatzeko, 15 urteko epea ezarri eta 90.000 milioi dolarreko diru-partida eman zen. Baina 2000. urtean, zirriborro bat aurkeztu eta lana hiru urte beranduago amaituta zegoen. Lana teknika berri, ordenagailu, eta, batez ere, nazioarteko elkarlanari esker egin zen uste baino azkarrago. Mugari garrantzitsua izan zen benetan zientziaren garapenerako. Orain dela gutxi, Ion Torrent enpresak esan du lana 750 dolarrengatik egiteko gai dela. Baina, zertarako?

Gure genoma ezagutzeak eduki litzakeen aplikazioak asko dira, hainbat esparrutan itzelezko iraultzak bultzatuko dituztenak. Horien artean, medikuntza pertsonalizatua dago. Izan ere, genoma ezagutzeak zenbait gaixotasunekin lotuta dauden geneak identifikatzea ahalbidetzen du. Esate baterako, orain arte bakarrik genekien hemofilia gaixotasun genetikoa zela, baina orain badakigu gaixotasuna zein gene sortzen duen. Eta in vitro ernalketaren bitartez, gaixotasuna duten enbrioak ekidin daitezke.

Beste kasu batzuetan, gaixotasun eta geneen arteko harremana ez da zuzena, baina gure genomaz jakitea baliagarria da gaixotasunak edukitzeko dugun arris-

kua neurtzeko. Progenika Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean dagoen enpresak, adibidez, hiperkolesterolemia jasateko dugun arriskua neurtzen duen biotxip bat garatu du. Eta badaude beste biotxip asko, zenbait minbizi eta beste gaixotasun batzuk izateko dugun probabilitatea adierazten dutenak.

Mugen beharrik?

Norberaren genoma ezagutzeak diagnostiko goiztiarrak ahalbidetzen ditu, beraz. Eta minbizi jakin bat izateko arrisku handia badugu, errazagoa izango da hura antzeman eta tratatzea, gaixotasuna oraindik oso aurreratuta ez dagoenean. Aipatutako biotxipak garestiak dira gaur egun, baina genomarekin gertatu den bezala, gero eta merkeagoak izango dira, eta laster egongo dira guztion eskurara. Orduan gizarteari egokituko zaio neurriak hartzea.

Argi dago interesgarria dela guk eta gure medikuek informazio hori edukitzea. Baina bidezkoa, eta legezkoa, izango da, banketxeek kreditu bat ematera koan edo mediku-aseguruek polizak negoziatzerakoan, halako testak eskatzea? Era berean, teknika hobeagoak garatuko dira gaixotasun genetikoak ekiditeko. Eta teknika horiek ere baliagarriak izango dira seme-alabak neurritara eduki ahal izateko. Erabilera ezberdinak dituen teknika bat da. Non dago muga? Beharrezkoa da muga egotea? Eta beharrezkoa izanez gero, nork jarri behar du?

*Norberaren
genoma ezagutzeak
diagnostiko goiztiarrak
ahalbidetzen ditu*



Amazonas Txorierrin hasten da



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Dino Bourdieu soziologoak errealitatea dikotomietan antolatuta daukagula: handi/txiki, kanpo/barru edo lokala versus globala -gaur egun modan dagoana.

Gure espezieak daukazan arazo nagusi bien ganean -klima aldaketa eta ekonomia beti hazten ezin egotea- argi eta garbi idatzi eban Donella Meadows-ek 1972an, 1968ko Erromako Kluba deritxanean esanekoa argitaratuz *The Limits*

to Growth liburuan. Aiko noiz! Txorierrigurdiz, astoz eta benedejeraz beterik egonean. Zientzialariek baekien orduko haretan ezinezkoa zala amaibako progresoa bizitzea.

Etxeak, pabilioiak, aparkalekuak eregiz, ahaleko lursailak sartu doguz zementopean. Halanda guzti krisia ateraino etorri jaku.

Zelan izan da hori? Badira arazo parebat danori eragiten deuskuenak, batzuk unibertsalak, besteak globalak. Arazo unibertsalei geuk erantzun geinskie: Txorierriko kutsadurari, esate baterako. Ostera, arazo globalak klima aldaketa la-koak, ezin konpondu geinkez bakarrean; kasurako, berotegi-efektua.

Behin honezkero, ezinezkoa da norbere sorterriari begira bakarrik bizitzea, nahiz eta behar-beharrezkoa dogun lekuan lekukoa indartzea. Behi lokala eta zekor globala buztartu beharrean gara.

Zer ondare lagako deutsegue orain eskolara dabilztan umeei 2072rako, hau da, planetaren hazkundeak topea joko dauenerako? Basoetan pinu gauzeztanak sasi artean; erreka bazterretan plastikoa dindilizka; bizpahiru gradu beroa-go eta euri apurra.

Ez jaku komenidu ahaztuterik, 4.000.000.000 bizilagun dirala prest egunean euro bigaitik behar egiteko eta Brasileko Amazonas Txorierrin hasten dala.

URAS
Estetika eta masajea
Alta Patxi Ugaldé, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Baserniko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Inmobiliaria
ETORKI
Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobiila: 607 32 35 53 48160 DERIO

Gorka García Llamosas
608 16 76 18
gorkiguay@hotmail.com
Txakur eta katuentzako pentsua
Prezio onean
Ettxera eramaten dizugu

Etxeko sukaldaritza

Makailao freskoa, laban

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak:**

- Lau zati makailao fresko (2 cm-koak)
- Berenjena bat
- Kipula bi
- Berakatz-atal bi
- Pipermin bat
- Oliba orioa, gatz eta peregil apur bat
- Limoi baten zukua edo ozpina

Prestateko area:

Labarako azpil baten osagaiak ipiniko doguz: berenjenea (garbituta eta azalagaz), kipulea eta makailaoa. Gatz apur bat eta orioa botako doguz. Labara sartu eta han 200 gradutan eukiko dogu, 10-15 minutuan. Eginda dagoanean, berakatzak eta pipermina prijuduko doguz. Berakatzak gorrituta dagozanean, limoi zukua edo ozpina gehituko dogu. Orio errea gainetik botako deusagu arrainari, eta perejilaz apaindu egingo dogu.

Barazkiez
betetako
berenjenak**Osagaiak (sei lagunentzat):**

- 2 berenjena
- 4 tomate heldu
- Kipula bat
- 2 porru
- Gaztai birrindua
- Ogi birrindua
- Orioa

Prestateko area:

Tomateak garbitu eta galdarraztauko doguz. Azala altzetan hasten jakenean, uretatik aterako doguz. Ostea, zurituko doguz, eta laukitxotan ebagiko doguz. Berenjenak erditik ebagi eta labara sartuko doguz 180 gradutan. Han 20 minutuan izango doguz. Eginda dagozanean, labatik atera eta hutsituko doguz.

Kipulea eta porruak txikituko doguz, eta sueztituko doguz zartaginean. Gorritzen diranean, berenjenen mamina gehituko dogu. Gatz botako dogu. Berenjenen azala bateko dogu, eta, horretarako, tomate jarriko dogu hondoan, eta salteaua, gainea. Orio-zorrotada bat, gaztai birrindua eta ogi birrindua botako doguz, eta labara sartuko dogu, han gainerretzeko.

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolekin jokatu, etorri zaituz Trippyra, Derioa

Beheko Kalea Baxo
DERIOMODA
INFANTIL
TximeletaGernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 2648160 DERIO
BizkaiaFamilia osorako
kalitatezko arreta,
zure eskuZerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiropraxiaclínica dental
ZAINDUZ
hortz klinikaTxarri etorbidea, 9 - Loria | Antea eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 957 79 54 45
info@dentizainduz.com | www.dentizainduz.comeleizalde
kafetegiaLainomendi, 7
(Elizaren aurrean) 48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88**elekma**LARRAZTEN BAT DUTEN ETXETRENA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRENA ELEKTRIKO TOSAKLeherengo markak • Prestakari onak
BOSCH, SIEMENS, BALAYTxarri etorbidea, 25-3 N • 48160 Loria
T: 944 330 232
www.elekma.es**TURREGOITI**
JATETXEALaurietako etorbidea, 27
48160 Loria-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com



Berba zaharrak

Joko berria proposatzen dizuegu. Ezetz asma-tu antzinako berbek zer esan nahi duten.

1. Initziaz
2. Tertzio honetan
3. Jorraie
4. Sanatenes
5. Koiu
6. Abazuzea
7. Estartie
8. Belu

- A) Garai honetan
- B) Bidea
- C) Hartu
- D) Berandu
- E) Solorako aitzur txikia
- F) Txingorra
- G) Saintiratuak. Okerdurak sendatzeko erri-tuala
- H) Zerutik erortzen diren izotz bolatxoak

ERANTZUNAK: 1F, 2A, 3E, 4G, 5C, 6H, 7B, 8D

Sudokua

	7	5		2		9	8	
	6		3					2
					9			5
		2		4		5		7
5	3					6	2	
2		3	5		4			9
4	8		9					
				6				

1	4	2	3	6	8	9	5	7
5	8	6	1	2	7	4	3	9
2	1	3	5	7	4	8	6	9
5	3	1	7	9	8	6	2	4
8	9	2	1	4	6	5	3	7
6	4	7	2	3	5	1	9	8
1	2	4	6	8	9	3	7	5
9	6	8	3	5	7	4	1	2
3	7	5	4	2	1	9	8	6

Consulting Sondika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 475 746

Mixtine, 6 behean
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

urel
Psicología Social
Psicología - Pedagogía - Logopedia
URSULA TOMÁS ALMAGRO
645 147 982
Mixtine, 3 behean • 48150 Sondika
www.urel.es • urel@urel.es

HARTEGIA • URDAITEGIA

VICTOR
ARTESAN-ELABORAZIOA

Okela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomoak...
Plater aurrekoizatu

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Azokak

Larrabetzu

- > Txakolinaren Eguna. Apirilaren 1ean.



Erakusketak

Sondika

- > "Henri Matisse: Jazz". Apirilaren 2tik 26ra, erakusketa aretoan. BBK-ren eskutik.

Derio

- > "Empatia" graffiti murala. Apirilean, Kultur Birikan. Mankomunitateak antolatua.
- > "Comprometidos con Annantapur", Vicente Ferrer Fundazioaren eskutik. Apirilaren 3tik 27ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Sondika

- > Ume sahararrak udan hartzea. Apirilaren 24an, 19:30ean, gatzetxean.
- > Bularreko minbizia, Julio Moreno medikuaren eskutik. Apirilaren 26an, 19:30ean, Kultur Etxean.

Ikastaroak

Lezama

- > Sukalkia egiten ikasi. Apirilaren 22an, Lezamako Txokoan. Berbalagun egitasmoak antolatua.

Ikuskizunak

Sondika

- > Ipuin kontalaria. Apirilaren 20an, 18:00etan, liburutegian.

Loiu

- > Kontu kontalaria (Liburuaren Nazioarteko Eguna). Apirilaren 23an, 18:00etan, haur liburutegian.

Derio

- > *So in love* kabareta. Apirilaren 27an, 21:00etan, Gurea Aretoan. Sarrerak aretoan salgai (asteburuetan): 6 euro.

Zamudio

- > *Euskal sorta*, umeentzako ipuin saioa, Apika taldearen eskutik. Apirilaren 21ean, 11:30ean, liburutegian.
- > *La Corte del Faraón*. Apirilaren 26an, Arriaga antzokian. Izena ematea: apirilaren 23ra arte.

Lezama

- > Ekidazu abesbatzaren kontzertua. Apirilaren 21ean, 20:00etan, elizan. Gonbidatutako abesbatzak: Lirain txiki (Gorliz) eta Eskuz esku (Getxo).

Irteerak

Sondika

- > Herri Urrats. Izena ematea: apirilaren 16tik maiatzaren 9ra, liburutegian.
- > Pico mayor - Zugaztieta. Apirilaren 22n, Gurasoen elkarteak eta Udalak antolatua. Izena ematea: apirilaren 19ra arte, liburutegian.

Zamudio

- > Benidorm. Izena ematea: apirilaren 2tik 18ra.
- > Herri Urrats. Izena ematea: apirilaren 16tik maiatzaren 6ra.

Lezama

- > Valdegobia. Apirilaren 15ean, Zorribike taldeak antolatua.
- > Herri Urrats. Izena ematea: apirilaren 16tik maiatzaren 9ra.

Larrabetzu

- > Morgatik, oinez. Apirilaren 22an, Gurasoen elkarteak antolatua.

Lehiaketak

Zamudio

- > Plater-tiroko Euskadiko Kopa. Apirilaren 22an, 10:00etan, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Txorierri Ehiza elkarteak antolatua.

Lezama

- > Emakumeen V. Txorierri Sari Nagusia. Apirilaren 15ean, 10:00etan. Mankomunitateak antolatua.

Bestelakoak

Derio

- > Tokiko agenda 21. Apirilaren 25ean, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunitateak antolatua.

Zamudio

- > Plater-tiroko entrenamendua eta Pull-a. Apirilaren 14an, 10:00etan, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Txorierri Ehiza elkarteak antolatua.
- > San Juan gaua antolatzeko batzarra. Apirilaren 19an, 19:00etan, Zamudiotorren.

Larrabetzu

- > Irakurritakoa asmatu. Badator Literatura (Liburuaren Nazioarteko Eguna). Apirilaren 23an, arratsaldean, Herriko plazan.
- > Erabilitako liburuen azoka txikia. Apirilaren 25etik maiatzaren 4ra, Angulerin.

IRATXO
gozotegia
tarta pertsonalizatuak
trufak
telok
pastelak
pastelak

Mikel Zarate, 2 - 1. lorra • Sondika, 48150 • 94 453 89 19

Lzpilen
PARAFARMASIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lorra - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana, 1-3, SONDIKA



Rhynux

SEGURTASUN-SISTEMEN INGENIARITZA

PINOA POLIGONOA 2C, 5. PAB. - ZAMUDIO-


TEL: 944 521 544 - www.rhynux.com

- BIDEO-ZAINTZA
- ALARMAK
- SUTEAK
- EBASKETEN KONTRAKOAK
- SUTEEN KONTRAKOAK
- ONTZIDIAK KONTROLATZEA
- SARREREN KONTROLAK
- DOMOTIKA
- KONTROL PERIMETRALA
- GASOLINDEGIEN ZERREDA BELTZAK



**HILEKO
KUOTARIK
GABE**

**KONPROMISORIK
GABEKO
AURREKONTUAK**



**PROBA EZAZU
HITZARMENA
ITXI AURRETIK**



ZURE SEGURTASUNA, GURE LEHENTASUNA

**Hitzartutako prezioa
duten 60 etxebizitza
libre berri?**

**Dagoeneko
obra hasi
dela?**

**Eta erdia
baino gehiago
saldu dutela?**

**2 logela
208.028€*-rengatik
eta 3 logela
238.557€*-rengatik.
Garaje eta
trastelekuarekin!!!**

*BE2 gabe

Eta igerilekuekin!!



**ETXEBIZITZA-GUNEA
LANDABARRI**

**Bilbo Handiko
habitat berria**

Derio konkistatu duen fenomeno ezagutu

400 familiak dagoeneko egin dute

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

94 645 90 15 www.sukia.com